



DURANGOKO TOKIKO AGENDA

21eko II. EKINTZA PLANA

2013-2020

2013ko ABENDUA



DURANGOKO TOKIKO AGENDA 21eko II. EKINTZA PLANA

2013-2020

PROIEKTUAREN ZUZENDARITZA: DURANGOKo Udala

Aitziber Irigoras, Alkatea

GARAPEN IRAUNKORRAREN BATZORDEA

Iker Ocejá, Batzordeko Lehendakaria

Ander Gorrotxategi, Zinegotzia

Jon Kepa Garro, Zinegotzia

Natxo Martínez, Zinegotzia

Arrate Elkorro, Zinegotzia

Jon Bingen Oier Landabidea, Zinegotzia

Pedro Roberto Frontaura, Zinegotzia

Pilar Ríos, Zinegotzia

Idoia Agorria, Zinegotzia

Juan José Gastañazatorre, Zinegotzia

Iker Urkiza, Zinegotzia

Aitor Larruzea, Tokiko Agenda 21eko Teknikaria

SAILEN ARTEKO BATZORDEA

Ramón Sorarrain, Udaleko Idazkaria

Pili Velasco, Kontu-hartzailea

Fede Arruti, Udaleko Arkitektoa

Benjamin Arriolabengoa, Udaltzain Burua

Elixabete Etxanobe, Kontratazio Teknikaria

Laura Vallejo, Kultura Teknikaria

Juan Antonio Atutxa, Euskara Teknikaria

Ander Álvarez, Gaztedia eta Kirol Teknikaria

Kety Arrabal, Berdintasunerako Teknikaria

María Villar, Gizarte-Ekintzako Teknikaria

Verónica Redondo, Immigrazio Teknikaria

Jose Manuel Rodríguez, Erakunde Autonomoen Gerentea

Jesús Iriondo, Informatika eta Komunikazioaren arduraduna

Nerea Erauzkin, Informatika Teknikaria

Luis Bande, Mugikortasun Saila

Ivan Espinosa, Hirigintza eta Ingurumenerako aholkulari juridikoa

Asier Guisasola, Bide Ingeniaria

Iñigo Andres, Obra publikoetako Ingenieri Teknikoa

Patricia Etxenagusia, Udalaren Eraikinetako Arkitekto Teknikoa

Aintzane Bengoetxea, Ekipamenduen Arkitekto Teknikoa

HERRITARREN ETA ERAGILEEN PARTAIDETZA

Foro Soziala, Durangoko elkarteek osatutakoa
Foro Ekonomikoa, garapen ekonomikorako eragileek osatutakoa
Herritar Foroa, Durangoko herritarrek osatutakoa

AHOLKULARITZA TEKNIKOA

PROSPEKTIKER, S.A.

Olatz Errazkin. Proiektuaren Zuzendaritza
Julen Rekondo. Koordinazioarako laguntza

Ibon Zugasti. Teknikaria
Oihana Hernáez. Teknikaria
Iñaki Elzaurdi. Teknikaria
Eugenia Atin. Teknikaria

EDUKIEN AURKIBIDEA

1. AURKEZPENA.....	5
2. TOKIKO AGENDA 21eko EKINTZA PLANA.....	6
2.1. HELBURUAK	6
2.2. EGITURA, EDUKIAK ETA METODOLOGIA	9
2.2.1. Ikuspegia	9
2.2.2. Helburuen definizioa	9
2.2.3. Ekintza Plana.....	10
3. 2020rako IKUSPEGIA.....	12
4. LORTU BEHARREKO HELBURUAK	15
5. TOKIKO EKINTZA PLANA	17
5.1. ARDATZEN ETA ILDO ESTRATEGIKOEN LABURPENA	17
5.2. EKINTZEN FITXA DESKRIBATZAILEAK	28

1. AURKEZPENA

Tokiko Agenda 21eko Ekintza Plana, hots, Tokiko Agenda 21en oinarrizko osagaia, Durangoko udalerriak **jasangarritasunarekin** duen **estrategia eta konpromisoa** da.

Bere helburua hainbat ekintzen bidez **udalerriko ingurumen, gizarte eta ekonomia arloko erronkei erantzuna ematea** da.

Planak **8 urteko indarraldia** edukiko du. Epe horretan, epe labur ertain eta luzeko ekintzak garatu eta betearazteko benetako epeekin bat datorren plangintza-tresna eratu nahi da.

Planaren erreferentzia-esparrua **Aalborg+10eko Konpromisoak** dira eta **Autonomia Erkidegoko**, zein **Europako** udalaz gainera estrategiekin bat dator.

Egun, Ekintza Plana datozen 8 urteetan jarritako **Helburuak** eta **Ikuspegia** lortzeko jarraitu behar den **“ibillbide orria”** da.

2013-2020 aldirako Ekintza Plana **pausu erabakigarria** da Durangoko Tokiko Agenda 21en, honako oinarrizko bi helburu hauengatik: udal-jardueran **jasangarritasun-irizpideen** barneratzean aurrera egiteko ekintza-plan honen bidez eta **herritarren iritzia** barne hartzeko, planaren burutze-prozesu osoan zehar, bai ingurumen eta gizarte arloko diagnostikoan, bai udalerrarentzako etorkizunerako ikuspegian eta proposamenetan ere.

2. TOKIKO AGENDA 21eko EKINTZA PLANA

2.1. HELBURUAK

Nazioarteko gutun eta adierazpen gisa adierazitako ildo eta oinarri orokorrak lurralde-testuinguruen arazo zehatzetan sartu, zehaztu eta horietara egokituz doazen heinean antolatu eta ezartzen da jasangarritasun-politika, Estatuko, Autonomia Erkidegoko eta Tokiko esparruko ekintza-plan eta estrategien bidez.

2013-2020 aldirako Durangoko Tokio Agenda 21eko Ekintza Plana **5 ardatz, 11 Ildo Estrategiko, 38 Programa eta 114 Ekintzetan egituratzen da**, eta oinarri inspiratzaile gisa Aalborg+10eko konpromisoak hartu dira. Konpromiso horiek udal-kudeaketako helburu eta ekintza-ildo garrantzitsuak ezartzen dituzte, toki-mailan Durangoko ingurumen eta gizarte arloko diagnostikoaren oinarritzko elementuekin egokitu direnak.

Duten esparru-izaeraz gain, Aalborg +10eko konpromisoak oinarritzko erreferentea dira duten izaera integratzaileagatik, garapen jasangarriaren alderdi guztiak barne hartzen baitituzte, eraginkortasunagatik eta ekintzetan erraz zehaztu daitezkeelako.

Planak lortu nahi dituen helburu nagusiak hauek dira:

- Durangoko Udalak garapen jasangarriaren arloan hartutako konpromisoak betearaztea.
- Udaleko sailek jasangarritasunaren arloan egiten duten lana aintzat hartu eta biltzea.
- 8 urteko indarraldia edukiko duen Plana burutzea, aldi horren amaieran nahi den bilakaera lortzeko udalerriaren ikuspegiaren zehaztapenean inspiratuta, eta kargu politikoentzako legealdiaren plangintza eta ebaluazioan erreferente eta tresna ere izango da.
- Hausnarketa estrategikoa, eta Udaleko kargu politiko guztientzako erreferente indartsuak diren helburu eta une garrantzitsuak dituen Ekintza Plana egitea.
- Tokiko Agenda 21en prozesuarekin lotura estua duten beste udal-plan edo estrategia batzuk barne hartu ahal dituen esparrua sortzea.
- Udal-kudeaketari koherentzia eta kalitate gehiago ematea, zeharkako lana egin eta udal-sailen arteko koordinazioa eta harremana erraztuta, ahaleginak eta
- Durangorentzako udalerri jasangarriaren eredua zehaztu eta lortzeko konpromisoa hartu duten eragile guztiak partaide bihurtzea eta partaidetza-kultura sustatzea.

- Jasangarritasun-irizpideak jarduera-eremu guztietan sartu, eta ezarpenean aurrera egitea.
- Kanpo finantziazioaren sarrera erraztea, izan ere, geroz eta gehiagotan eskatzen zaie finantziazio objektu diren proiektu eta ekimenei iraunkortasunerako helburuekin bat etortzea.

Kanpoko finantzaketa-iturriak eskuratzea erraztea, finantziatzeko jasangarritasun-helburuei ekarpenak egitea eskatzen baitiete ekimen edo proiektuei gero eta gehiago.

Ekintza Plana egiteko jarraitu den prozesu metodologikoak hainbat fase izan ditu, eta fase guztietan **herritarrek eta gizarte-eragileek, zein udal-teknikariek eta udaleko ordezkari politikoek parte hartu dute**. Metodologiari dagokionez, Ekintza Plana burutzeko, honako pausu hauek eman dira:

1. Irudia. Plangintza estrategikoko prozesua.



1. Fasea: Planaren formulazio estrategikoa.

Udalerriko eremurik garrantzitsuenak zehazten diren ingurumen eta gizarte arloko diagnostikoa, aurreko Ekintza Planaren ebaluazioa eta Aalborg-eko konpromisoak kontuan hartuta, udalerrarentzako **zer lortu nahi den** zehaztu da hausnarketa ordenatuaren bidez (2020rako ikuspegia) eta **nola egin daitekeen aurrera** egungo egoeratik ezarriko den helburu horretaraino (helburuak, estrategiak eta azkenik, ekintzak).

Ikuspegia eta Ekintza Planaren Helburuen zirriborroa egiteko, partaidetza-dinamikak burutu dira partaidetza-foroekin eta Sailarteko Batzordearekin. Hala ere, azkenean Garapen Iraunkorraren Batzordeak jo ditu baliozkotzat partaidetza-batzarretako ondorioak.

2. Fasea: Ekintza Planaren 1. Zirriborroa zehaztea

2020rako (hemendik 8 urtera) lortu nahi den **Ikuspegi "partekatua"** onetsi ostean, Ekintza Planaren lehenengo eskema egin da partaidetza-foroetan jasotako proposamenak kontuan hartuta, ildo estrategikoak, programak eta ekintzak zehaztuz, eta ondoren hausnarketa teknikoa eta politikoa burutu da.

3. Fasea: Ekintzen karakterizazioa eta Ekintza Planaren 2. Zirriborria egitea

Ekintza Planaren 1. Zirriborria aurkeztu eta eztabaidatu eta ekarpen tekniko eta politikoak batu ostean, proposatutako ekintza guztien karakterizazio zehaztua burutu du aholkularitza-taldeak, betearazteko epeak, kostua, arduradun teknikoak, finantzaketa... eta abarri buruz, abiaraztea eta **etorkizuneko jarraipena ahalik eta gehien erraztuko duen dokumentua** egiteko asmoz.

4. Fasea: Jarraipena egiteko eta ebaluatzeko sistema zehaztea

Durangoko 2013-2020 aldirako Ekintza Plana-Tokiko Agenda 21 bere indarraldian zehar behar bezala ezarri eta garatzen dela bermatzeko, funtsezkoa da aldizka ekintzen eta proposatutako helburuen betearazte-maila ebaluatuko duen jarraipena egitea, eta geroago, ebaluazio horretan oinarrituta, beharrezko doikuntza, hobekuntza eta egokitzapenak egin ahal izateko. Horretarako, **Ekintza Plana osatzen duten ekintza eta estrategietara egokitutako jasangarritasun-adierazleak** zehaztu dira.

Planaren ezarpenaren urteko ebaluazioa Tokiko Agenda 21en kudeaketa-prozesuak eta jarraipena errazteko diseinatutako aplikazio informatikoaren (MUGI 21) bidez egingo da. Aplikazio hori dagoeneko ezarri da Durangoko Udalean.

5. Fasea: Durangoko Udalbatzak 2013-2020 aldirako Durangoko Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planaren behin betiko dokumentua onetsi eta aurkeztea

Planaren behin betiko dokumentua idatzi ostean, dokumentu honetan agertzen dena, hain zuzen ere, Ingurumen Batzordeak eztabaidatu du eta ondoren **Durangoko Udalbatzak onetsi du.**

2.2. EGITURA, EDUKIAK ETA METODOLOGIA

2.2.1. Ikuspegia

Ikuspegia terminoak lortu nahi den etorkizuna argi edukitzea esan nahi du (irudikatutako etorkizuna). Beste ere batera esanda, epe luzera lor daitekeen ametsa zehaztea da.



Ikuspegi Estrategikoa eraikitzea partaidetza-prozesuaren emaitza izan da, **udal-baliabideen mobilizazioa eskatzen baitu** etorkizun komuna eraiki ahal izateko.

Beraz, Ekintza Planaren ikuspegi estrategikoa prozesu parte-hartzailea izan da, Udaleko arduradun politikoak eta teknikariak, Durangoko eragile sozialak eta herritarrak batu baititu, prozesu honen esparruan sortutako hainbat fororen bidez.

2.2.2. Helburuen definizioa

2013-2020 aldirako Tokiko Agenda 21eko Ekintza Plana amaitzerakoan lortu nahi diren helburu kuantitatiboak diren helburuak zehazterakoan honako irizpide hauek hartu dira kontuan:

- Tokiko Ekintza Planaren bidez lortu beharreko mugarri kuantitatibo zehatzak.
- Ahal izan denean, tokiko jasangarritasun-adierazle gisa adierazten saiatu da.
- Gutxi gora behera, helburuak modu orekatuan banatu dira ildo estrategiko guztien artean, helburu bat edo 2 esleitu zaio ildo estrategiko bakoitzari.
- Ahalik eta ulergarrienak izateko ahalegina egin da.

Helburuak identifikatzeko, honako osagai hauek hartu dira kontuan:

- Diagnostikoan identifikatutako esku hartzeko lehenetsitako eremuak.
- Ekintza Planeko helburu estrategikoak.
- Udaleko , zein udalaz gaineko plan eta programen esparruan zehaztutako hobekuntza-mugarriak. Horri dagokionez, dokumentu hauek aztertu dira:

- Ecoeuskadi 2020, EAEko gainerako politika sektorialak biltzen baititu.
- Europa 2020.
- EAEko II. eta III Ingurumen Esparruko Programa.
- EAEko Iraunkortasun Txostena 2011.
- Bizkaiko Hiri Hondakinak Kudeatzeko II. Plan Integrala 2005-2016.
- Durangoko Udal Planak.

2.2.3. Ekintza Plana

Hemen aurkezten den dokumentua Durangoko 2013-2020 aldirako Tokiko Agenda 21eko Ekintza Plana da eta hainbat ekintzen bidez udalerriko **ingurumen-erronka, erronka sozial eta ekonomikoei** erantzuten dieten garatu beharreko helburu eta ekintzen multzoa biltzen ditu.

Jarraian Planaren egitura orokorra ikus daiteke (Ardatzak, Ildo estrategikoak, Programak eta Ekintzak):

2. Irudia. Ardatzen, ildo estrategikoen, jarduera programa eta ekintzen hedatze eskema.




Halaber, ekintza bakoitzeko banakako fitxa egin da. Fitxa horretan informazio hau biltzen da:

3.Irudia. Ekintza fitxa eredu eta bertan jasotzen den informazioa.

X.Y.Z. EKINTZA ETA IZENA IDENTIFIKATZEKO KODEA			
Kodeak Ildo Estrategikoa, Jarduera Programa eta Ekintzaren zenbakia identifikatzeko balio duten hiru digitu ditu.			
ILDOA	X.IE.ILDO ESTRATEGIKOAREN IZENA		
PROGRAMA	Y.1. Jarduera-programaren izena		
GAIKAKO EREMUA	JASANGARRITASUNARI BURUZKO DIAGNOSTIKOAN ZEIN GAI EREMUTAN DAGOEN		
AALBORG-EKO KONPROMISOA	AALBORG-EKO ZEIN KONPROMISOTAN ERAGITEN DUEN		
DESKRIBAPENA	Ekintzaren helburuaren deskribapena eta dituen edo banakatzen den azpi-ekintza/ekintzak edo zeregina/zereginak.		
ALDIZKAKOTASUNA	Ekintza burutzeko proposatutako maiztasuna. Ekintza etengabe burutu behar denean, "etengabe" hitza agertzen da.	BETEARAZTEKO EPEA	Ekintza burutzeko behar den denbora. maiztasun honen arabera: Laburra (1.eta 2. urtea) Ertaina (3. eta 4. urtea) eta luzea (5-8. urtea).
LEHENTASUNA	Esleitzen zaion lehentasuna: Handia, Ertaina, Txikia	KOSTUA	Betearazi behar den ekintzaren zenbateko ekonomikoa.
ADIERAZLEAK	Ekintzarekin zuzenean edo zeharka lotuta dauden <u>Jasangarritasun-adierazleen Sistemako</u> adierazlea edo adierazleak.		
ARDURA JARRAIPENA/ BETEARAZPENA	Ekintza betearazteko ardura duten Udaleko sailak edo erakundeak		
FINANTZAKETA	Proposatutako ekintza betearazteak dakartzan gastuak finantzatzen lagun dezaketen erakundeak aipatuko dira.		

3. 2020rako IKUSPEGIA



2020an garena:

*Udalerri atsegina eta erakargarria pertsonentzat,
gizalegearen eta elkartasunaren balioetan hazten ari dena,
munduarekiko eta berrikuntzarekiko jarrera irekiarekin, sustraiak eta
herri-izaera galdu gabe,
eskualdeko ikuspuntutik egituratutako lurralde- eta
ekonomia-eredua duena,
ingurumenean eredugarri eta erreferentziazkoa,
gizarte mailan kohesionatua, barneratzailea eta bidezkoa,
bere garapen osoa ingurumen, gizarte eta ekonomia alorren arteko
orekan oinarritu duena, herritarrak udal politikaren eguneroko
protagonista aktiboak bihurtu direlarik.*

Ikuspegiaren adierazpena honelakoa da:

Udalerri atsegina eta erakargarria pertsonentzat:

Durango herri hobe eta erakargarriagoa da alderdi guztietan, eta herritarra da sistemaren ardatza. Udalerri atsegina dela ikusten da, non pertsonak gustura dauden, bertoko izatearen sentimendua sendoa da eta herritarrek komunitate-proiektuaren protagonista direla ulertzen dute.

Gizalegearen eta elkartasunaren balioetan hazten ari da:

Durango herriaren berezko dituzte gizalegearen eta elkartasunaren balioak. Horrela, komunitateak badaki bere "betebeharrak eta eskubideak" zeintzuk diren eta erantzukizunak onartzen ditu. Are gehiago, balio horiek agerikoak dira ingurumenarekiko jokabidean, partekatzen den ingurunearekiko eta lekuarekiko errespetuan eta baita ere Durango elkarrekin bizi diren pertsona guztiekiko errespetuan.

Munduarekiko eta berrikuntzarekiko jarrera irekia, sustraiak eta herri-izaera galdu gabe:

Durango gizarte dinamikotzat jotzen da, kanporantz irekia, eta ingurunearekin lankidetzan ari da datozkion erronkei aurre egiteko, aldaketaren beldurrik gabe, jarrera berritzaileaz. Haatik, ez du bere jatorria ahaztu eta berezko izaerari eusten dio. Horrela ikusten da herriko kaleetan eta auzoetan sortzen eta aurrera eramaten den jardunean, elkarrekin sendoa sustatzen duen horretan. Era berean, kultur erreferente izaten jarraitzen du. Eta belaunaldi berriak eleanitzak badira ere, Euskara Euskal Herriko

hizkuntza propioa dela sentitzen dute eta euren kultur balio nagusitzat dute.

Eskualdeko ikuspuntutik egituratutako lurralde- eta ekonomia-eredua:

Durango berezko ingurunea dela ulertzen da, non bertoko erakundeak eta elkarteak lankidetzan ari diren garapen ekonomikoaren eta lurralde-ereduaren esparruetan sinergien eta lankidetzaren prozeduren bidez.

Horrenbestez, Durango eremuan, eskualdeko buru den aldetik, Durango ekonomia dibertsifikatuaren alde egiten du, tokiko produktuaren alde, merkataritza-ehun sendoa defenditzen du eta jardura ekonomiko eta lanpostu iraunkorrak sortzea.

Era berean, iraunkortasun-irizpideen arabera Hiri-antolamendurako Plan Nagusia onartu izanak artifizialtze-ekintzak murriztea ahalbideratzen du, eskaintza benetako eskarira egokitzea, erabiltzen ez diren guneak berrerailearen alde egitea eta ingurune naturalaren babesa bermatzea. Are gehiago, planteamenduak hirigintza bateratzailea eta integratzailea finkatzen du. Ildo horretan, erabilera mistoak sustatzen ditu, eta hirigintza-araudiak berak energiarekin eta klima-aldaketarekin lotutako helburuetara lotzen ditu zaharberritze- eta eraikitze-ekintzak.

Bestalde, Durango unibertsalki eta era intermodalean iragarria dela ikusten dugu. Oinezkoak eta bizikletak dira protagonista, eta aldi berean, indartu egin da barruko eta kanpoko garraio publikoaren sistema.

Ingurumenean eredugarri eta erreferentziazkoa:

Agenda 21 ekimenaren barruan 2007an ekindako bideari jarraituz, Durango erreferentziazko bilakatu da beste herri batzuentzat, ingurumen-bektoreetan izan dituen lorpenengatik. Ildo horretan, aurrera egin da energia-eraginkortasunean eta -kontsumoetan, eta baita ere energia berriztagarriak abian jartzen; gora egin du etxeko hondakinen birziklapen-bolumenak, Bizkaiko Hondakinen Planaren helburuak bete dira eta hondakin organikoak ere birziklatzen dira; ibaien eta erreken kalitate ekologikoa hobetu egin da; berotegi-efektua eragiten duten gasak murriztu dira; kutsadura elektromagnetikoaren inguruko ardura areagotu egin da; ur-kontsumoa eta galera-bolumena gutxitu dira; eta bukatzeko, behera egin du kutsadura akustikoak eta baita usainek eragindakoak ere.

Gizarte mailan kohesionatua, barneratzailea eta bidezkoa:

Gizartea esparru guztietan egituratzen duen ardatzetako bat da berdintasuna. Halere, Durango herri anitza da, eta errespetuaren eta kultura-artekotasunaren balioek egituratzen dute elkarbizitza. Halaber, gizarte-desberdintasunak zuzentzeko lanean ari dira, "ikusten ez diren oztopoak" ezabatuz, eta modu horretan, gizarte-kolektiboen artean aukera-berdintasuna bermatu nahi da.

Garapen osoa ingurumen, gizarte eta ekonomia alorren arteko orekan oinarritu duena:

Aurrerapausoak ematen ari dira iraunkortasun-irizpideak udal-kudeaketan sartzeko, iraunkortasunaren kontzeptua bi zentzutan ulertuta: batetik, iraunkortasun-irizpideak zeharka sartuz politika eta programetan, irizpide ekonomiko, sozial eta ingurumenekoen arteko oreka mantenduz, eta bestetik, kudeaketa kontzeptu holistiko modura hartuz, efizientzia eta eraginkortasun irizpideei jarraiki eta emaitzak lortzera bideratuta.

Herritarrek udal politikaren eguneroko protagonista aktiboak bihurtu dira:

Durango "politika-kultura" berri baten alde egin da, demokrazia aktiboan eta administrazioen arteko koordinazioan eta lankidetzan oinarritutakoa. Ildo horretan, herritarrek hurbileko erakundetzat dute Udala, eta parte-hartze aktiboa sustatzen duela uste dute. Are gehiago, "gobernu onaren" paradigma gisa aurrera egin da gardentasunari dagokionez, eta politikak sistematikoki ebaluatuz egindakoaren kontu ematen zaie herritarrei. Horretarako, parte-hartze eredua diseinatu behar izan da Durangorako, parte hartzeko moduak eraberrituz.

Aldaketa horri esker Udalaren barruko koordinazioa hobetu egin da eta Tokiko Agenda 21en eta beste politika batzuen zeharkakotasuna ahalbideratu da. Era berean, eskualdeko herrien arteko lankidetzat eta erakundearen artekoa sendotu egin dira, eta baita gizarte zibileko sareekiko elkarlana ere.

4. LORTU BEHARREKO HELBURUAK

2013-2020 aldian ekintza-planaren esparruan lortu beharreko 16 helburu zehaztu dira guztira, hauexek dira helburuak:

1. HELBURUA: EROSKETA JASANGARRIEN IRIZPIDE ZEHAZTUAK DITUZTEN EROSKETA PUBLIKOEN %100 BURUTZEA.

1. helburua lortzeko, 2020. urterako Durangoko Udal osoak, zein Erakunde Autonomoek erosketa jasangarren irizpide zehaztuak dituzten erosketa publikoen %100 burutu beharko dituzte.

2. HELBURUA: JASANGARRITASUN-IKUSPEGIA BARNE HARTZEN DUTEN PLAN EDO PROGRAMEN KOPURUA.

2. helburua lortzeko, 2020. urterako Udaleko plan eta programa sektorial guztietan jasangarritasun-ikuspegia sartu beharko da.

3. HELBURUA: PLAN ETA PROGRAMA GARRANTZITSUENETAN HERRITARREN PARTAIDETZA BERMATZEA.

3. helburua lortzeko, 2020. urterako, plan eta programa garrantzitsuenetan herritarren partaidetza bermatu beharko da.

4. HELBURUA: 20-64 URTE BITARTEKO PERTSONEN ARTEAN %75EKO ENPLEGU-TASA LORTZEA.

4. helburua lortzeko, 2020. urterako 20 eta 64 urte bitarteko pertsonen artean %75eko enplegu tasa lortu behar da.

5. HELBURUA: DURANGOKO LANGABEZIA-TASA %10 MURRIZTEA.

5. helburua lortzeko, 2020. urterako Durangoko langabezia-tasa %10 murriztu behar da.

6. HELBURUA: ENPRESA/ESTABLEZIMENDUEN SORRERA %15 GEHITZEA.

6. helburua lortzeko, 2020. urtean enpresa eta/edo establezimenduen sorrera %15 gehitu behar da.

7. HELBURUA: DBE (DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA) JASOTZEN DUTEN FAMILIA-KOPURUA GUTXITZEA %15ean 2012KO DATUEI DAGOKIENEZ.

7. helburua lortzeko, 2020. urterako 2012an DBE jasotzen zuten familia-kopurua %15 gutxitu behar da.

8. HELBURUA: GIZARTE-POLITIKETAKO UDAL-GASTUA %20 GEHITZEA.

8. helburua lortzeko, 2020rako gizarte-politiketako udal-gastua %20 gehitu behar da.

9. HELBURUA: BIZTANLERIA EUSKALDUNA %21 GEHITZEA (2006. urtearekin alderatuta).

9. helburua lortzeko, 2020. urterako biztanleria euskalduna %21 gehitu beharko da 2006. urteari dagokionez.

10. HELBURUA: AZALERA ARTIFIZIALIZATUAREN PORTZENTAJEA MANTENTZEA.

10. helburua lortzeko, 2012. urteko azalera artifizializatuaren portzentajea mantendu beharko da.

11. HELBURUA: 2020. URTERAKO BIZIKLETENTZAKO EGOKITUTAKO AZALERA %30 GEHITZEA.

11. helburua lortzeko, 2020. urterako bizikletentzako egokitutako azalera %30 gehitu beharko da.

12. HELBURUA: ERTAINA-ONARGARRIA KATEGORIETAKO INDIZE-KALITATEAK %95ETIK GORA LORTZEA.

12. helburua lortzeko, 2020. urterako onargarria eta ertaina kategorietako aire-indizeak %95etik gora lortu behar da.

13. HELBURUA: OME-K AGLOMERAZIO HANDIETAN GOMENDATUTAKO MUGATIK GORAKO MAILEN ERAGINPEAN DAGOEN BIZTANLERIAREN PORTZENTAJEA %10a BAINO GUTXIAGO IZATEA.

13. helburua lortzeko, 2020. urterako OMEk aglomerazio handietan gomendatutako mugatik gorako mailen eraginpean dagoen biztanleriaren portzentajea %10a baino gutxiago izan behar da.

14. HELBURUA: 2020. URTERAKO ETXEKO HONDAKINEN %60aren BERRERAPILPENA ETA BIRZIKLATZEA LORTZEA.

14. helburua lortzeko, 2020. urterako etxeke hondakinen %60 birziklatzea eta berrerabiltzea lortu behar da. Era berean, baztertutako zatia osotasunean eliminatzea lortzea nahi da.

15. HELBURUA: KONATBILIZATU GABEKO HIRIKO UR ESKAERA %25EKO MAILARA HELDU ARTE MURRIZTEA.

15. helburua lortzeko, 2020. urterako kontabilizatu gabeko hiriko ur-eskaera %25eko mailara heldu arte murriztu behar da.

16. HELBURUA: ENERGIAREN AZKEN KONTSUMOAN BERRIZTAGARRIEN KUOTA %20RA IGOTZEA.

16. helburua lortzeko, 2020. urterako energiaren azken kontsumoan berriztagarrien kuota %20ra igo behar da.

5. TOKIKO EKINTZA PLANA

5.1. ARDATZEN ETA ILDO ESTRATEGIKOEN LABURPENA

ARDATZAK	ILDO ESTRATEGIKOAK
1. ARDATZA: GOBERNATZEKO EREDU BERRIA	1. ILDO ESTRATEGIKOA: JASANGARRITASUN-IRIZPIDEAK BARNERATZEA UDAL-KUDEAKETAN 2. ILDO ESTRATEGIKOA: KALITATEZKO INFORMAZIOA ESKURA IZATEA ETA HERRITARREN PARTAIDETZA SUSTATZEA
2. ARDATZA: SARE EKONOMIKO DIBERTSIFIKATU ETA JASANGARRIA	3. ILDO ESTRATEGIKOA: GARAPEN EKONOMIKO DIBERTSIFIKATU ETA JASANGARRIA
3. ARDATZA: GIZARTE INKLUSIBO ETA KOHESIONATUA	4. ILDO ESTRATEGIKOA: BERDINTASUN SOZIALA ETA GIZARTERATZEA ETA KOHESIO SOZIALA SUSTATZEA 5. ILDO ESTRATEGIKOA: EUSKARA SUSTATU ETA KULTURA ETA KIROLA BULTZATZEA
4. ARDATZA: LURRALDE-EREDU BERRIA	6. ILDO ESTRATEGIKOA: HIRI ANTOLAMENDU JASANGARRI ETA KOORDINATUA ELEMENTU NATURALAK BABESTUZ 7. ILDO ESTRATEGIKOA: MUGIKORTASUN JASANGARRI ETA IRISGARRITASUN UNIBERTSALERANTZ AURRERA EGITEA
5. ARDATZA: INGURUMENAREN KALITATEA ETA BALIABIDEEN ERABILERA JASANGARRIA	8. ILDO ESTRATEGIKOA: INGURUMEN-KALITATEAREN HOBETUNTZAN ETA KLIMA-ALDAKETAREN AURKAKO BORROKAN AURRERA EGITEA 9. ILDO ESTRATEGIKOA: HONDAKINEN KUDEAKETA JASANGARRIA 10. ILDO ESTRATEGIKOA: URAREN ERABILERA ERAGINKORREAN ETA AURREZTEAN AURRERA EGITEA 11. ILDO ESTRATEGIKOA: ERAGINKORTASUN ENERGETIKOA HOBETU ETA ITURRI BERRIZTAGARRIEN ERABILERA SUSTATZEA

1. ARDATZA: GOBERNATZEKO EREDU BERRIA

1. ILDO ESTRATEGIKOA: JASANGARRITASUN-IRIZPIDEAK BARNERATZEA UDAL-KUDEAKETAN

1.1. JARDUERA PROGRAMA. Udal-kudeaketan jasangarritasun-irizpideak barneratzea.

EKINTZAK

- 1.1.1. Udalak garatzen dituen plan eta programetan jasangarritasun-irizpideak sartzeko mekanismo eta prozeduren zehaztapenean aurrera egitea.
- 1.1.2. Jasangarritasunaren gaian Udaleko sailen eta erakundeen arteko barne koordinazioko ereduak zehaztea.
- 1.1.3. Udaleko kontratazio eta erosketako prozesuetan irizpide jasangarriak barne-hartzean aurrera egitea.
- 1.1.4. Egungo udal-ekipamenduak kudeatzea, jasangarritasun-irizpideak kontuan hartuta.
- 1.1.5. Ekipamenduen segurtasunaren hobekuntzan aurrera egitea, baimendutako erabilerak eta antolatzen diren jardueren tipologia kontuan hartuz

1.2. JARDUERA PROGRAMA. Eskualdeko ikuspegia eta administrazioen arteko lankidetzak.

EKINTZAK

- 1.2.1. Eskualdeko erakunde eta foroetan partaidetza aktiboa, garapen ekonomiko, sozial eta ingurumen-alderdien garapen kontuetan ikuspegi bera izatearen mesedetan.
- 1.2.2. Udalaz gaineko administrazioekin lankidetzak eta koordinazio aktiboa sustatzea.

1.3. JARDUERA PROGRAMA. Herritarrengandik hurbil dagoen administrazioa eta kalitatezko zerbitzuak dituenak.

EKINTZAK

- 1.3.1. Administrazio elektronikorantz aurrerapausoak egitea.
- 1.3.2. Udalak jasangarritasunaren kontuetan duen zeregin eredugarria indartzea.
- 1.3.3. Eskainitako zerbitzuen kalitatearen ebaluazioak burutzea.

2. ILDO ESTRATEGIKOA: KALITATEZKO INFORMAZIOA ESKURA IZATEA ETA HERRITARREN PARTAIDETZA SUSTATZEA

2.1. JARDUERA PROGRAMA. Kalitatezko informazioa herritarren eskura.

EKINTZAK

- 2.1.1. Programa eta planak egin eta diseinatzeko prozesuetan eta udalerriarentzako garrantzi handiko proiektuetan informazio eta komunikazioko mekanismoak zehaztu eta sartzea.
- 2.1.2. Udalak eta bere erakundeek garatutako plan eta programen betearazpen, kostu eta eraginari buruzko informazioaren itzulerako mekanismoak diseinatzea.
- 2.1.3. Udal-aurrekontuarekin lotutako informazioa herritarren esku jartzea, arlo orokorretan banakatuta.

2.2. JARDUERA PROGRAMA. Herritarren eta udal-eragileen partaidetza aktiboa.

EKINTZAK

- 2.2.1. Udal politikako erabaki klabeetan herritarren partaidetza eta erabaki mekanismoak jartzea.
- 2.2.2. Udalak sustatutako politiken aholkularitzan aldizka gaian adituak diren eragileak sartzea, eta baita arazoaren gizarte-ezagutza ere.
- 2.2.3. Gazteen partaidetza sustatzea.
- 2.2.4. Barneko langileak partaidetza-prozesuei buruz trebatu eta sentsibilizatzea.

2.3. JARDUERA PROGRAMA. Udalerriko elkarte-sarea bultzatzea.

EKINTZAK

- 2.3.1. Elkarte-sarean kohesio handiagoa sustatuko duen plana diseinatzea, elkartearen arteko harremana eta komunikazioa indartzeko jarduera-programa koordinatuarekin.
- 2.3.2. Udal-ekipamendu eta lokalak eta beren erabilera aztertzea.

2.4 JARDUERA PROGRAMA. Jasangarritasunaren gaian sentsibilizatzea eta baterako erantzukizuna sustatzea.

EKINTZAK

- 2.4.1. Jasangarritasuna eta kontsumo arduratsuaren balioetan prestakuntza, informazio eta sentsibilizazioko ekintzak indartzea.
- 2.4.2. Zerbitzu publikoen kostua eta herritarren eskubide eta betebeharrei buruzko informazioa eta kontzientziazioa.

2.5 JARDUERA PROGRAMA. Belaunaldien arteko harremanak sustatzea.

EKINTZAK

- 2.5.1. Belaunaldien arteko harremana eta elkarlana sustatuko duten ekimen eta dinamika sozialak bultzatzea.
- 2.5.2. Pertsona nagusi aktiboen boluntariora indartzea.

2. ARDATZA: SARE EKONOMIKO DIBERTSIFIKATU ETA JASANGARRIA

3. ILDO ESTRATEGIKOA: GARAPEN EKONOMIKO DIBERTSIFIKATU ETA JASANGARRIA

3.1. JARDUERA PROGRAMA. Lehiakortasuna eta enplegua hobetzea.

EKINTZAK

- 3.1.1. Durangaldeko Enpleguaren Eskualdeko Planaren garapena bultzatzea.
- 3.1.2. Enpresa eta eragileen arteko lankidetzaz sareetan udalak partaidetza aktiboa izatea, sektoreetako enpresen lehiakortasuna eta enpleguaren sorrera bultzatzeko.
- 3.1.3. Jarduera ekonomikoek sortutako eraginak zaintzea, ezarritako mekanismoen arabera.

3.2. JARDUERA PROGRAMA. Lehen sektorea bultzatzea.

EKINTZAK

- 3.2.1. Tokiko produktu ekologikoen merkaturatzea bultzatzea.
- 3.2.2. Tokiko ekoizleen eta merkataritza eta ostalaritzako sektoreen arteko sareko lana.
- 3.2.3. Tokiko produktuen erosketari buruzko sentsibilizazio eta kontzientziaketa.

3.3. JARDUERA PROGRAMA. Industria-sektorea bultzatzea.

EKINTZAK

- 3.3.1. Durangaldeko Lehiakortasun Poloa bultzatzea.

3.4. JARDUERA PROGRAMA. Merkataritza Biziberritzeko Plana betearaztea.

EKINTZAK

- 3.4.1. Merkataritza-sektorea eta zerbitzuen sektorea kokatzen diren lekuetako hiri-espazio eta hiri-azpiegiturak hobetzea, PERCO plana kontutuan hartuz.
- 3.4.2. Merkataritza-establezimenduen berrikuntza erraztu eta sustatzea.
- 3.4.3. Durango merkataritza. zerbitzu eta aisialdiaren kokaleku gisa proiektatzea.

3.5. JARDUERA PROGRAMA. Turismoaren industria bultzatzea.

EKINTZAK

- 3.5.1. Turismoaren industriarentzako eskualdeko estrategiaren garapena bultzatzea.
- 3.5.2. Durangorentzako nahi den posizionamendua zehaztea.
- 3.5.3. Udalerriko baliabide turistikoak balioa ematea eta baliabideak dinamizatzea.
- 3.5.4. Durangoko baliabideak barne hartzen dituzten pakete turistikoaren merkaturatzea bultzatzea.

3. ARDATZA: GIZARTE INKLUSIBO ETA KOHESIONATUA

4. ILDO ESTRATEGIKOA: BERDINTASUN SOZIALA ETA GIZARTERATZEA ETA KOHESIO SOZIALA SUSTATZEA

4.1. JARDUERA PROGRAMA. Norbanakoaren autonomia sustatzea.

EKINTZAK

- 4.1.1. Norbanakoaren autonomia bultzatzen duten zerbitzu eta programak sustatzea.
- 4.1.2. Mendekotasuna duten pertsonentzako zerbitzuak eta programak sustatzea beren inguruko egonaldia errazteko.
- 4.1.3. Etxeko laguntza-zerbitzua sustatu eta indartzea.
- 4.1.4. Tutoretzapeko apartamentuetarako egon daitekeen eskaintza aztertzea.

4.2. JARDUERA PROGRAMA. Pertsona guztien gizarteratzean aurrera egitea.

EKINTZAK

- 4.2.1. Gizarteko bazterkeria jasaten duten pertsonentzako laneratzea eta gizarteratzea sustatzea.
- 4.2.2. Drogazale eta bere familiakoei laguntza ematea, laguntzako boluntarioritza-proiektuen bidez.
- 4.2.3. Bi gizarte-emergentzietako etxebizitza abiaraztea.
- 4.2.4. Gizarteko bazterkeria-egoera larrian dauden pertsonentzako laguntza-zentroa abiarazten laguntzea.
- 4.2.5. Neguko aterpea mantentzea.

4.3. JARDUERA PROGRAMA. Udalerrian atzeritarren harrera-prozesuak eta gizarteratze-prozesuak eta aniztasun kulturalaren kudeaketa bultzatzea.

EKINTZAK

- 4.3.1. Atzeritarren harrera-prozesuak eta gizarteratze-prozesuak sustatzea.
- 4.3.2. Udalerrian aniztasun kulturalaren kudeaketan aurrera egitea.

4.4. JARDUERA PROGRAMA. Emakume eta gizonen arteko berdintasun eraginkorra sustatzea.

EKINTZAK

- 4.4.1. Berdintasun-plan berria diseinatu eta abiaraztea.

5. ILDO ESTRATEGIKOA: EUSKARA SUSTATU ETA KULTURA ETA KIROLA BULTZATZEA

5.1. JARDUERA PROGRAMA. Euskararen erabilera eta ikasketa sustatzea.

EKINTZAK

- 5.1.1. Norbanakoaren eremuan, eremu sozialean eta ofizialean euskararen erabilera eta ikasketa sustatzea, euskaraz bizitzeko aukera bermatzeko, Euskara plana kontutan hartuz.
- 5.1.2. Euskara, zerbitzu-hizkuntzaz gain, udal-kudeaketan laneko hizkuntza ere izatea bermatzea, Euskara plana kontutan hartuz.
- 5.1.3. Euskarazko udal-programen eskaintza gehitzea eta, halaber, euskararen eskaera sustatzea herritarren aldetik, Euskara plana kontutan hartuz.

5.2. JARDUERA PROGRAMA. Kirol-eskaintza dibertsifikatu eta ezagutaraztea.

EKINTZAK

- 5.2.1. GR Mikeldi mantentzea.
- 5.2.2. Durangoko haurtzaro, nerabetasun eta gazteriari buruzko hausnarketa. Programak eta ekimenak ezarri beharreko ekintza plan bat landu.
- 5.2.3. Aniztasun funtzionaleko taldeentzako eta pertsona nagusientzako kirol egokitua sustatu eta kirolaren bidez osasuna bultzatzea.
- 5.2.4. Urtero kirol-eskaintza aurkeztea, Durangon egin ditzaketen modalitateak ezagutzera emateko.

5.3. JARDUERA PROGRAMA. Eskaintza kulturala eta "hiri kulturalaren" irudia indartzea.

EKINTZAK

- 5.3.1. Ekimen kultural berritzaileak sustatu eta bultzatzea.
- 5.3.2. Aniztasun funtzionala duten pertsonen jarduera kultural eta aisialdiko jardueretan parte hartzeko aukerak gehitzea.
- 5.3.3. Udalerriko musika-talde eta talde kulturalen jarduera bultzatzea, antolatzen diren ekitaldietan parte hartzeko aukera eskainiz.

4. ARDATZA: LURRALDE-EREDU BERRIA

6. ILDO ESTRATEGIKOA: HIRIGINTZA ANTOLAMENDU JASANGARRI ETA KOORDINATUA ELEMENTU NATURALAK BABESTUZ

6.1. JARDUERA PROGRAMA. Hirigintza-antolamendu jasangarrian aurrera egitea.

EKINTZAK

- 6.1.1. Hirigintza Antolamendurako Plan Orokor berria idaztea, jasangarritasun-irizpideak kontuan hartuz, partaidetza-mekanismoak erabiliz.
- 6.1.2. Trenbideko bideari buruzko foro bat eratzea.
- 6.1.3. Udalerrri mugakideekin lankidetzan aritzea hirigintza-plangintza koordinatua burutzeko.
- 6.1.4. Espazio abandonatuak eta hondatutako eremuak leheneratzea.

6.2. JARDUERA PROGRAMA. Etxebizitza eskuratzea eta etxebizitzaren kalitatea.

EKINTZAK

- 6.2.1. Etxebizitza publikoan alokairua eta txandakako sistema lehenestea.
- 6.2.2. Etxebizitzaren birgaitze jasangarria sustatzea.
- 6.2.3. Erabilera-lagapen publiko edo pribatuko kooperatibak bultzatzeko aukera lantzea.

6.3. JARDUERA PROGRAMA. Balio naturalak modu eraginkorrean babestea eta berdeguneak gehitzea.

EKINTZAK

- 6.3.1. Landare inbaditzaileei buruzko jarduera-protokoloa ezartzea.
- 6.3.2. Ibaiertzak garbitzea, ibai bazterreko basoak sartuz eta ubideak garbituz.

7. ILDO ESTRATEGIKOA: MUGIKORTASUN JASANGARRI ETA IRISGARRITASUN UNIBERTSALERANTZ AURRERA EGITEA

7.1. JARDUERA PROGRAMA. Oinezko eta bizikletak lehenesten dituen mugikortasun ereduaren aurrerapausoak egitea.

EKINTZAK

- 7.1.1. Durangoko beharretara egokitutako bidegorrien sare berria egitea.
- 7.1.2. Oinezko eta bizikleten arteko bizikidetzari buruzko ordenantza ezagutaraztea.
- 7.1.3. Aparkaleku eta zirkulaziorako erabiltzen diren hiriguneko espazio batzuk libre uztea, herritar eta oinezkoek erabil ditzaten, 2010-2025 aldirako Durangoko Mugikortasun Jasangarriari buruzko Planean ezarritako irizpideekin bat etorritik.

7.2. JARDUERA PROGRAMA. Garraio publikoaren eskaintza hobetzea.

EKINTZAK

- 7.2.1. Gasteizerako eta Gipuzkoako inguruko eskualdeetarako joan-etorrietan garraio publikoa gehitu eta hobetzeko beharrezko koordinazio-mekanismoak ezartzea.
- 7.2.2. Mankomunitateko Mugikortasun Plana sustatzea, Durango, Izurtza, Mañaria, Otxandio eta Abadiñoko garraio publikoa hobetzeko.
- 7.2.3. Gizarte-sektore batzuen (hirugarren adineko pertsonak, mugitzeko zailtasuna duten pertsonak, etab.) eskaerak beteko dituen udalerriko garraio publikoko sistemaren bideragarritasuna aztertzea.

7.3. JARDUERA PROGRAMA. Aparkaleku-sistemaren eredu berria garatzea.

EKINTZAK

- 7.3.1. Egungo "TAO" sistemari eta "TAO txartelaren" ereduari buruz hausnarketa egitea.
- 7.3.2. Egonaldi luzeetarako kostu txikiko edo kosturik gabeko aparkaleku-eremuak abian jartzeko bideragarritasuna aztertzea, udalerrian lan egiten duten kanpotarrek lan-jarduera garatu dezaten.
- 7.3.3. Igande eta jaiegunetan Landakoko aparkalekua zabaltzeko bideragarritasuna aztertzea..

7.4. JARDUERA PROGRAMA. Ibilgailuen trafikoa baretu eta segurtasuna hobetzea.

EKINTZAK

- 7.4.1. Udalerriko seinaleen azterketa eta hobekuntza orokorra.
- 7.4.2. Durango kanpoaldeko ingurubidea ixtea, Mugikortasun Planarekin bat etorritz.
- 7.4.3. Tabirako biribilgunea birmoldatzea, gun e beltza desagerrarazi eta zirkulazio-eraztuna itxiko denean sortuko den gero eta zirkulazio handiagoa errazteko.
- 7.4.4. Hiri-trafikoaren baretzean aurrera egitea.

7.5. JARDUERA PROGRAMA. Irisgarritasun unibertsalean aurrerapausoak egitea.

EKINTZAK

- 7.5.1. Bide publikoetako Irisgarritasun Plana berrikustea, debetatutako hiriaren mapa kontutan hartuz.
- 7.5.2. Eraikin publikoetako Irisgarritasun Plana berrikustea.
- 7.5.3. Irisgarritasun unibertsalaren kontuan sentsibilizatuta dauden elkarte, erakunde eta pertsonekin batera lanean jarraitzea, udal-eraikin publikoak birgaitu edo diseinatzeko eta sentsibilizazio eta kontzientziazioko ekintzak burutzeko.

5. ARDATZA: INGURUMENAREN KALITATEA ETA BALIABIDEEN ERABILERA JASANGARRIA

8. ILDO ESTRATEGIKOA: INGURUMEN-KALITATEAREN HOBEKUNTZAN ETA KLIMA-ALDAKETAREN AURKAKO BORROKAN AURRERA EGITEA

8.1. JARDUERA PROGRAMA. Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen berreskuraketa sustatzea.

EKINTZAK

- 8.1.1. Lurzoru kutsatuen adierazlea kontrolatzeko tresnak diseinatzea.
- 8.1.2. Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen zerrenda eta kokapena argitaratzea.
- 8.1.3. Dagozkion lurzatietako lurzoruen adierazpena izapidetzeko beharraren ustezko ez betetzeak eskumendun ingurumen-administrazioari jakinaraztea.

8.2. JARDUERA PROGRAMA. Airearen kalitatea hobetzea.

EKINTZAK

- 8.2.1. Oso kutsagarriak diren jarduera ekonomikoen egungo zaintzarekin jarraitzea.
- 8.2.2. Airearen kalitatearen plana berrikusi eta ebaluatzea.

8.3. JARDUERA PROGRAMA. Kutsadura akustikoa murriztea.

EKINTZAK

- 8.3.1. Kutsadura akustikoaren kudeaketan kontrola hobetzeko neurriak ezartzea.
- 8.3.2. Kutsadura akustikoak pertsonen osasunean duen eraginari buruzko jardueretan sentsibilizazioa eta "gizalegea" hobetzea.
- 8.3.3. Zarataren mapa berria egitea.

8.4. JARDUERA PROGRAMA. Kutsadura elektromagnetikoaren kontrola.

EKINTZAK

- 8.4.1. Telefonía mugikorraren antenak arautzen dituen udal-ordenantza onestea.
- 8.4.2. Udalerrian udal-ordenantzak araututako eremu elektromagnetikoak sor ditzaketen antenak dituzten irrati frekuentziako igorgailuen inbentarioa burutzea.
- 8.4.3. Durangoko hiriguneko kutsadura elektromagnetikoari buruzko azterketa egitea.

8.5. PROGRAMA. Ibaien ingurumen-kalitatea hobetzea.

EKINTZAK

- 8.5.1. Ibaien ingurumen-kalitatea hobetzeko neurriak sustatzea, Uraren Euskal Agentziarekin elkarlanean.
- 8.5.2. Ibaietara egindako isuriak kontrolatzea.

8.6. PROGRAMA. Berotegi-gasen isuriak murriztea.

EKINTZAK

- 8.6.1. Klima-alaketara egokitzeko neurriak ezartzea, klima-alaketaren aurka borrokatzeko planarekin bat etorriz.
- 8.6.2. Klima-alaketaren aurkako borrokan zeharkako neurri eredugarriak sustatzea.
- 8.6.3. Industriaren sektorean, etxebizitza-sektorean, zerbitzuen sektorean eta hondakinen sektorean eraginkortasuna hobetu eta isuriak murrizteko neurri eta/edo irizpide energetikoak sartzea.
- 8.6.4. Erregai fosilen isuri eta kontsumoaren murrizketa ekarriko duten mugikortasun-neurriak ezartzea, Durangoko Mugikortasun Jasangarriari buruzko Planarekin (2010-2025) bat etorriz.

9. ILDO ESTRATEGIKOA: HONDAKINEN KUDEAKETA JASANGARRIA

9.1. JARDUERA PROGRAMA. Hondakinen kudeaketa hobetzea eta murrizketa, banaketa eta balioespena sustatzea.

EKINTZAK

- 9.1.1. Sortutako hiri-hondakinak murrizteko neurrien ezarpena sustatzea.
- 9.1.2. Etxeko hondakinen gaikako bilketa eta berreskurapena gehitzea.
- 9.1.3. Hiri-hondakinen hondakin organikoen gaikako bilketa ezartzea ondoren konposta egiteko.
- 9.1.4. Konpostaje komunitarioa eta autokonpostajea sustatzea.
- 9.1.5. Hiri-hondakinen bilketan sorketaren araberako ordainketaren ezarpena aztertzea.
- 9.1.6. Etxeko hondakinekin batera daitezkeen hondakin arriskutsuen bilketa ezartzea.
- 9.1.7. Eraikuntza eta Eraispenerako Hondakinak ondo kudeatzeko beharrezko mekanismoak aztertzea.

10. ILDO ESTRATEGIKOA: URAREN ERABILERA ERAGINKORREAN ETA AURREZTEAN AURRERA EGITEA

10.1. JARDUERA PROGRAMA. Uraren kontsumoan aurrezteak.

EKINTZAK

- 10.1.1. Hornidura-sarearen isuriak murriztea.
- 10.1.2. Uraren erabilera eraginkorra eta ura aurrezteko neurriak sartzea udal-instalazioetan.

11. ILDO ESTRATEGIKOA: ERAGINKORTASUN ENERGETIKOA HOBETU ETA ITURRI BERRIZTAGARRIEN ERABILERA SUSTATZEA

11.1. JARDUERA PROGRAMA. Udalerriko eraginkortasun energetikoa hobetzea eta udalerriko argi-kutsadura murriztea.

EKINTZAK

- 11.1.1. Udalaren instalazio eta eraikinetako energia-kontsumoak monitorizatzea.
- 11.1.2. Udal-eraikin eta -instalazioetan eraginkortasun eta aurrezpen energetikoaren hobekuntzan aurrera egitea.
- 11.1.3. Udalerri osoarentzako argi publikoei buruzko plan integrala burutzea , energia-kontsumoa murriztu eta argi-kutsadura murrizteko.
- 11.1.4. Eraikinetako argi apaingarrien kutsadura murrizteko irizpideak ezartzea.

11.2. JARDUERA PROGRAMA. Energia-iturri berriztagarriak sustatzea.

EKINTZAK

- 11.2.1. Instalazio publikoetan energia berriztagarriak sustatzea.
- 11.2.2. Mugikortasun energetikoa bultzatzea, berriz kargatzeko azpiegiturak ezarriz.

5.2. EKINTZEN FITXA DESKRIBATZAILEAK

1.1.1. UDALAK GARATZEN DITUEN PLAN ETA PROGRAMETAN JASANGARRITASUN-IRIZPIDEAK SARTZEKO MEKANISMO ETA PROZEDUREN ZEHAZTAPENEAN AURRERA EGITEA.			
ILDOA	1.IE. JASANGARRITASUN-IRIZPIDEAK BARNERATZEA UDAL-KUDEAKETAN		
PROGRAMA	1.1. Udal-kudeaketan jasangarritasun-irizpideak barneratzea.		
GAIKAKO EREMUA	BARNEKO KOORDINAZIOA ETA ZEHARKAKOTASUNA		
AALBORG-EKO KONPROMISOA	1. GOBERNATZEKO MODUAK 2. JASANGARRITASUNAREN ALDEKO UDAL KUDEAKETA		
DESKRIBAPENA	Ekintza honen helburua Udalak sustatzen dituen ekintza honen plan eta programa nagusien (adibidez: HAPO, Berdintasun Plana, Euskararen Plana, Immigrazio Plana, Tokiko Agenda 21eko Ekintza Plana etab.) diseinuan, zein betearazpenean irizpide ekonomikoak, ingurumen-irizpideak eta irizpide sozialak kontuan hartzea da. Horrek diziplina anitzeko taldeen eraketa dakar, bai zehazte fasean, bai ezarpen-fasean, horrela plangintza sektorialean beste aldagai batzuk sartzen lagunduz, jasangarritasunaren mesedetan. Beraz, ekimena honetan datza: - Jasangarritasun-irizpideak barne hartzeko prozedurak zehaztuko dituzten plan eta programak finkatzea (Adibidez: Udalbatzak eta Gobernu Batzordeak onetsitako plan eta programak). - Plan eta programentzako prozedura eta mekanismoak zehaztea beren zehaztaperen, jarraipen- eta ebaluazio-faseetan, jasangarritasun-irizpideen barne-hartzea bermatzeko. - Udaleko plan eta programak diseinatu eta abiarazterakoan kontuan hartu beharreko irizpideak zehaztea.		
ALDIZKAKOTASUNA	Etengabea	BETEARAZTEKO EPEA	Laburra (2014)
LEHENTASUNA	Handia	KOSTUA	_____
ADIERAZLEAK			
ARDURA JARRAIPENA/ BETEARAZPENA	Alkatetza		
FINANTZAKETA			

1.1.2. JASANGARRITASUNAREN GAIAN UDALEKO SAILEN ETA ERAKUNDEEN ARTEKO BARNE KOORDINAZIOKO EREDUA ZEHATZEA.			
ILDOA	1.IE. JASANGARRITASUN-IRIZPIDEAK BARNERATZEA UDAL-KUDEAKETAN		
PROGRAMA	1.1. Udal-kudeaketan jasangarritasun-irizpideak barneratzea.		
GAIKAKO EREMUA	BARNEKO KOORDINAZIOA ETA ZEHARKAKOTASUNA		
AALBORG-EKO KONPROMISOA	1. GOBERNATZEKO MODUAK 2. JASANGARRITASUNAREN ALDEKO UDAL KUDEAKETA		
DESKRIBAPENA	Ekintza honen helburua jasangarritasunaren gaian udaleko sail edo erakundeen arteko barne koordinazioko eredia zehatzea da. Ekintza abiarazteko ekimenak honako hauek dira: - Harreman-eredua, koordinazio-mugarriak zehatzea, elkarreragin-maila ezberdinak kontuan hartuz: maila politiko-teknikoa, maila tekniko-teknikoa eta maila tekniko-udal-erakundeak. - Eredua zehaztu ostean, jasangarritasun-kontuetako udaleko sail eta erakundeen arteko koordinazio-organoa eratu, eta horien artean, Tokiko Agenda 21eko Ekintza Plana. Garatu beharreko zeregin nagusiak honako hauek izan litezke: · Urtero gauzatu beharreko planaren jardura-multzoa berrikustea, behar izanez gero jarduerak eguneratuz, eta zerbitzuen araberako esleipena eta hurrengo urterako dagozkion aurrekontuak burutuz. · Ekintza Planaren garapenaren urteko aldizkako ebaluazioa egitea. · Udal-kudeaketan jasangarritasun-irizpideen barne-hartzearen jarraipena egitea.		
ALDIZKAKOTASUNA	Etengabea	BETEARAZTEKO EPEA	Laburra (2014)
LEHENTASUNA	Handia	KOSTUA	_____
ADIERAZLEAK			
ARDURA JARRAIPENA/ BETEARAZPENA	Alkatetza		
FINANTZAKETA			

1.1.3. UDALEKO KONTRATAZIO ETA EROSKETAKO PROZESUETAN IRIZPIDE JASANGARRIAK BARNE-HARTZEAN AURRERA EGITEA.			
ILDOA	1.IE. JASANGARRITASUN-IRIZPIDEAK BARNERATZEA UDAL-KUDEAKETAN		
PROGRAMA	1.1. Udal-kudeaketan jasangarritasun-irizpideak barneratzea.		
GAIKAKO EREMUA	EROSKETA PUBLIKOA ETA UDAL ADMINISTRAZIOAREN INGURUMEN KUDEAKETA		
AALBORG-EKO KONPROMISOA	2. JASANGARRITASUNAREN ALDEKO UDAL KUDEAKETA 4. KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK		
DESKRIBAPENA	Ekintza honen helburua jasangarritasun-irizpideak (ingurumen-arlokoak, sozialak eta ekonomikoak) Udaleko erosketa eta kontratazio guztietan sartzea da. Egun, Durangoko Udalak Erosketa eta Kontratazio Berderako plana du ezarrita, baina erosketa eta zerbitzu batzuetara bakarrik mugatzen da eta ingurumen-irizpideak bakarrik barne hartzen ditu. Ekintza honek plan hori erosketa eta zerbitzu guztietara zabaltu nahi du, eta jasangarritasun-irizpideak sartu nahi ditu. Abiarazi beharreko ekimenak honako hauek dira: · Konpromiso politikoa hartzea eta ildo nagusiak adostea. · Barneko komunikazioa eta prestakuntza. · Erosketa eta kontratazio publiko jasangarriko politika ezartzeko estrategia eta hori lortzeko helburuak ezartzea. · Hautatutako produktu/zerbitzuen kategoriekin lotutako kontratazio-pleguetako jasangarritasun-irizpideak aukeratzea eta ezartzea. · Hornitzaile eta fabrikatzaileak izan daitezkeenengan jasangarritasun-irizpideen barne-hartzea suspertzea. Kontratuak gauzatzeko eskaintza egin edo harremanetan jarri ohi diren hornitzaileei Udaleko erosketa eta kontratazioen jasangarritasuna hobetzeko asmoa jakinaraztea. · Ezarritako neurrien kontrola eta jarraipena burutzea, lortutako onura (ekonomikoa eta gizarte eta ingurumen arlokoa). · Udaleko erosketa eta kontratazio jasangarriaren irizpideak betetzen direla bermatzeko jarraipen eta zaintza sistema jartzea.		
ALDIZKAKOTASUNA	Etengabea	BETEARAZTEKO EPEA	Ertaina (2015)
LEHENTASUNA	Handia	KOSTUA	
ADIERAZLEAK	Beste adierazle zehatz batzuk: · Udalean jasangarritasuna sustatzen duten produktuak kontsumitzea.		
ARDURA JARRAIPENA/ BETEARAZPENA	Erosketa eta Kontratazio Saila eta Tokiko Agenda 21		
FINANTZAKETA			

1.1.4. EGUNGO UDAL-EKIPAMENDUAK KUDEATZEA, JASANGARRITASUN-IRIZPIDEAK KONTUAN HARTUTA.			
ILDOA	1.IE. JASANGARRITASUN-IRIZPIDEAK BARNERATZEA UDAL-KUDEAKETAN		
PROGRAMA	1.1. Udal-kudeaketan jasangarritasun-irizpideak barneratzea.		
GAIKAKO EREMUA	EROSKETA PUBLIKO BERDEA ETA INGURUMEN-KUDEAKETA		
AALBORG-EKO KONPROMISOA	4. KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK		
DESKRIBAPENA	Helburua egungo udal-ekipamenduen kudeaketa jasangarritasun-irizpidea kontuan hartuta burutzea da. Abiarazi beharreko ekimenak honako hauek dira: - Egungo ekipamendu bakoitzaren inpaktu ekonomikoa, soziala eta ingurumen-inpaktua aztertzea, erabileren arabera. - Eraikinetan jasangarritasuna bermatzen duten neurriak abiaraztea.		
ALDIZKAKOTASUNA	Etengabea	BETEARAZTEKO EPEA	Luzea (2013-2020)
LEHENTASUNA	Handia	KOSTUA	_____
ADIERAZLEAK			
ARDURA JARRAIPENA/ BETEARAZPENA	Bulego Teknikoa Udal arkitektoa Tokiko Agenda 21eko Arloa		
FINANTZAKETA			

1.1.5. EKIPAMENDUEN SEGURTASUNAREN HOBEKUNTZAN AURRERA EGITEA, BAIMENDUTAKO ERABILERAK ETA ANTOLATZEN DIREN JARDUEREN TIPOLOGIA KONTUAN HARTUZ.			
PROGRAMA	1.1. Udal-kudeaketan jasangarritasun-irizpideak barneratzea.		
GAIKAKO EREMUA	JARDUERA EKONOMIKOEN ETA ARRISKUAREN KUDEAKETA		
AALBORG-EKO KONPROMISOA	9. BERDINTASUN ETA JUSTIZIA SOZIALA		
DESKRIBAPENA	Ekintza honen helburua ekipamenduen segurtasunaren hobekuntza aurrera egitea da, baimendutako erabilerak eta antolatzen diren jardueren tipologia kontuan hartuz. Abiarazi beharreko ekimenak honako hauek dira: • Urtean 2 eraikineko larrialdi-planak diseinatzea. • Udal-ekipamendu eta -espazioetan antolatzen diren ekitaldiek legezko segurtasun-eskakizunak bete ditzatela bermatzea.		
ALDIZKAKOTASUNA	Etengabea	BETEARAZTEKO EPEA	Luzea (2013-2020)
LEHENTASUNA	Handia	KOSTUA	2014: 7.500€ 2015: 7.500€ 2016: 7.500€ 2017: 7.500€ 2018: 7.500€ 2019: 7.500€ 2020: 7.500€ 52.500€
ADIERAZLEAK			
ARDURA JARRAIPENA/ BETEARAZPENA	Bulego Teknikoa Udal-eraikinetako arkitekto teknikoak		
FINANTZAKETA			

1.2.1. ESKUALDEKO ERAKUNDE ETA FOROETAN PARTAIDETZA AKTIBOA, GARAPEN EKONOMIKO, SOZIAL ETA INGURUMEN-ALDERDIEN GARAPEN KONTUETAN IKUSPEGI BERA IZATEAREN MESEDETAN.			
ILDOA	1.IE. JASANGARRITASUN-IRIZPIDEAK BARNERATZEA UDAL-KUDEAKETAN		
PROGRAMA	1.2. Eskualdeko ikuspegia eta administrazioen arteko lankidetzak.		
GAIKAKO EREMUA	KOMUNIKAZIOA HERRITARREN PARTAIDETZA, ELKARTEGINTZA ETA SENTSIBILIZAZIOA.		
AALBORG-EKO KONPROMISOA	1. GOBERNATZEKO MODUAK 2. JASANGARRITASUNAREN ALDEKO UDAL KUDEAKETA		
DESKRIBAPENA	Ekintza honen helburua eskualdeko foro eta erakundeetan partaidetza aktiborako joera izaten saiatzea da, garapen ekonomiko, sozial eta ingurumen-garapenaren arloan ikuspegi partekatua lortzeari begira, parte hartzen duten udalerri guztiek eskalako ekonomiei etekina atera ahal izateko garapen jasangarriaren kontuetan. Tokiko Agenda 21en prozesuak proposatzen dituen erronketako askok eskualdeko udalerri guztien arteko konponbidea eskatzen dute, eta beraz lankidetzan aritzeari esker, ikuspegi partekatua lortu ahal izango da garapen ekonomikoaren, sozialaren eta ingurumen-alderdien arloan, agertzen diren erronka eta konponbideen ebazpena erraztuz. Gainera, esperientziak eta baliabideak partekatzeak esku-hartzeko gaitasuna eta prozesuko partaidetza gehitzen ditu. Beraz, parte hartzen den eskualdeko foro eta erakundeen finkapenean, eta baita zerbitzu eta programa mankomunatuaren antolamenduan jarrera proposatzaile, elkarriketatzailerik eta parte-hartzaileak izatea da kontua. Horrek guztiak hauxe dakar berekin: · Teknikarien eta ordezkari politikoen partaidetza aktiboa eskualdeko foro, ekimen eta proiektuetan.		
ALDIZKAKOTASUNA	Etengabea	BETEARAZTEKO EPEA	Luzea (2013-2020)
LEHENTASUNA	Handia	KOSTUA	
ADIERAZLEAK			
ARDURA JARRAIPENA/ BETEARAZPENA	Alkatetza		
FINANTZAKETA			

1.2.2. UDALAZ GAINEKO ADMINISTRAZIOEKIN LANKIDETZA ETA KOORDINAZIO AKTIBOA SUSTATZEA.			
ILDOA	1.IE. JASANGARRITASUN-IRIZPIDEAK BARNERATZEA UDAL-KUDEAKETAN		
PROGRAMA	1.2. Eskualdeko ikuspegia eta administrazioen arteko lankidetza.		
GAIKAKO EREMUA	KOMUNIKAZIOA HERRITARREN PARTAIDETZA, ELKARTEGINTZA ETA SENTSIBILIZAZIOA.		
AALBORG-EKO KONPROMISOA	1. GOBERNATZEKO MODUAK 2. JASANGARRITASUNAREN ALDEKO UDAL KUDEAKETA		
DESKRIBAPENA	Helburua udalaz gaineke administrazioekin lankidetza eta koordinazio aktiboa sustatu eta bultzatzea da. Egun, lankidetza eta koordinazio egonkor eta iraunkorra mantentzen da instituzio eta sozietate eta erakunde batzuekin, eta horrela jarraitu beharko da onuragarria dela uste bada. Maila politikoan eta teknikoan sortuz doazen beste erakunde batzuekin koordinazioa eta lankidetza ere kontuan hartu beharko da. Koordinazioa hobetzea garrantzitsutzat jotzen da arlo hauetan, besteak beste: airearen kalitatea, URA, etab.		
ALDIZKAKOTASUNA	Etengabea	BETEARAZTEKO EPEA	Luzea (2013-2020)
LEHENTASUNA	Handia	KOSTUA	
ADIERAZLEAK			
ARDURA JARRAIPENA/ BETEARAZPENA	Alkatetza		
FINANTZAKETA			

1.3.1. ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKORANTZ AURRERAPAUOAK EGITEA.			
ILDOA	1.IE. JASANGARRITASUN-IRIZPIDEAK BARNERATZEA UDAL-KUDEAKETAN		
PROGRAMA	1.3. Herritarrengandik hurbil dagoen administrazioa eta kalitatezko zerbitzuak dituen.		
GAIKAKO EREMUA	KOMUNIKAZIOA HERRITARREN PARTAIDETZA, ELKARTEGINTZA ETA SENTSIBILIZAZIOA.		
AALBORG-EKO KONPROMISOA	1. GOBERNATZEKO MODUAK 2. JASANGARRITASUNAREN ALDEKO UDAL KUDEAKETA		
DESKRIBAPENA	Ekintza honen helburua administrazio elektronikorantz aurrerapausoak ekarriko dituzten udalaren kudeaketa modernizatzeko aplikazio eta konponbide teknologikoen garapen eta ezarpenean aurrera egitea da. Abiarazi beharreko ekimenak honako hauek dira: · Egungo web-orrialdea hobetu eta berritzea, erabilerraztasuna eta nabigazioa erraztuz. · Herritarrei ikuspuntu elektronikotik izapideak egiten uzten dien web-orrialdea diseinatzea. · Ekintza honek web-orrialdearen bidez egin daitezkeen izapideen eta eskura dauden zerbitzuen hedapena eta jakinarazpena ere badakar.		
ALDIZKAKOTASUNA	Etengabea	BETEARAZTEKO EPEA	Ertaina (2017)
LEHENTASUNA	Handia	KOSTUA	322.000€ 2014: 46.000€ 2015: 46.000€ 2016: 46.000€ 2017: 46.000€ 2018: 46.000€ 2019: 46.000€ 2020: 46.000€
ADIERAZLEAK			
ARDURA JARRAIPENA/ BETEARAZPENEA	Zerbitzu Informatikoak		
FINANTZAKETA			

1.3.2. UDALAK JASANGARRITASUNAREN KONTUETAN DUEN ZEREGIN EREDUGARRIA INDARTZEA.			
ILDOA	1.IE. JASANGARRITASUN-IRIZPIDEAK BARNERATZEA UDAL-KUDEAKETAN		
PROGRAMA	1.3. Herritarrengandik hurbil dagoen administrazioa eta kalitatezko zerbitzuak dituen.		
GAIKAKO EREMUA	EROSKETA PUBLIKOA ETA UDAL ADMINISTRAZIOAREN INGURUMEN KUDEAKETA		
AALBORG-EKO KONPROMISOA	1. GOBERNATZEKO MODUAK 2. JASANGARRITASUNAREN ALDEKO UDAL KUDEAKETA		
DESKRIBAPENA	Ekintza honen helburua jasangarritasunaren arloan udalak duen zeregin eredugarria indartzea da. Abiarazi beharreko ekimenak honako hauek dira: - Buruzagitza politikoa indartzea partaidetza-guneen inplementazio eta garapenean. Hortik, partaidetza-bideetan (organoak, prozesua eta mekanismoak) presentzia politikoaren beharra ondorioztatzen da. - Udalak tokiko komunitateari begira, jasangarritasunaren arloan duen zeregin eredugarria. funtzionamenduan jasangarritasun-irizpideak sartuz ere garatu dezake, kanpoko zerbitzuen kontratazio eta erosketen politikaren bidez, udal-eraikinen kudeaketan ingurumenaren ezaugarria txertatuz, ingurumen-kudeaketako sistemen ezarpena sustatuz eta zerga-arlo ekologiko edo berdea sustatuz. - Halaber, garrantzitsua da herritarrek jasangarritasunaren arloan garatzen ari diren ekimen positiboak ezagutu eta partekatzea, eta beraz, durangarrentzako komunikazio- eta informazio-bidea proposatzen da. - Tokiko jasangarritasunarekin lotutako hitzaldi eta ekitaldietan parte-hartzea Durangon garatutako esperientziak ezagutzera emateko.		
ALDIZKAKOTASUNA	Etengabea	BETEARAZTEKO EPEA	Luzea (2013-2020)
LEHENTASUNA	Ertaina	KOSTUA	_____
ADIERAZLEAK			
ARDURA JARRAIPENA/ BETEARAZPENA	Alkatetza		
FINANTZAKETA			

1.3.3. ESKAINITAKO ZERBITZUEN KALITATEAREN EBALUAZIOAK BURUTZEA.			
ILDOA	1.IE. JASANGARRITASUN-IRIZPIDEAK BARNERATZEA UDAL-KUDEAKETAN		
PROGRAMA	1.3. Herritarrengandik hurbil dagoen administrazioa eta kalitatezko zerbitzuak dituen.		
GAIKAKO EREMUA	BARNEKO KOORDINAZIOA ETA ZEHARKAKOTASUNA		
AALBORG-EKO KONPROMISOA	1. GOBERNATZEKO MODUAK 2. JASANGARRITASUNAREN ALDEKO UDAL KUDEAKETA		
DESKRIBAPENA	Ekintza honen helburua Udalaren aldetik herritarrek jasotzen dituzten zerbitzuei buruz duten asebetetze-mailaren jarraipena burutzea da. Abiarazi beharreko ekimenak honako hauek dira: · Zerbitzua erabiltzen duten pertsonen asebetetze-inkesta egiteko 2 zerbitzu hautatzea urtean. · Identifikatzen diren hobekuntza-eremuen jarraipena egitea.		
ALDIZKAKOTASUNA	Etengabea	BETEARAZTEKO EPEA	Luzea (2013-2020)
LEHENTASUNA	Ertaina	KOSTUA	
ADIERAZLEAK			
ARDURA JARRAIPENA/ BETEARAZPENA	Alkatetza		
FINANTZAKETA			

2.1.1. PROGRAMA ETA PLANAK EGIN ETA DISEINATZEKO PROZESUETAN ETA UDALERRIARENTZAKO GARRANTZI HANDIKO PROIEKTUETAN INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIOKO MEKANISMOAK ZEHATZU ETA SARTZEA, .			
ILDOA	2. IE. KALITATEZKO INFORMAZIOA ESKURA IZATEA ETA HERRITARREN PARTAIDETZA SUSTATZEA		
PROGRAMA	2.1. Kalitatezko informazioa herritarren eskura.		
GAIKAKO EREMUA	KOMUNIKAZIOA HERRITARREN PARTAIDETZA, ELKARTEGINTZA ETA SENTSIBILIZAZIOA.		
AALBORG-EKO KONPROMISOA	1. GOBERNATZEKO MODUAK 2. JASANGARRITASUNAREN ALDEKO UDAL KUDEAKETA		
DESKRIBAPENA	Ekintza honen helburua programa eta planak egin eta diseinatzeko prozesuetan eta udalerrarentzako garrantzi handiko proiektuetan, informazio eta komunikazioko mekanismoak zehaztu eta sartzea da. Ekintza abiarazteko ekimenak honako hauek dira: - Udaleko plan eta programen diseinua hasterakoan komunikazio eta informazioko protokoloa diseinatzea izango litzateke kontua, komunikazio-mugarriak, etab. zehaztuz. - Halaber, ekimen zehatz gisa, web-orrialdean Durangoko proiektu estrategikoekin lotutako informazioa, hots, Udalak onetsitako proiektu estrategikoak, plan eta programak, eta inpaktuaren araberrako beste batzuk iraultzeko gunea jartzea proposatzen da.		
ALDIZKAKOTASUNA	Etengabea	BETEARAZTEKO EPEA	Ertaina (2016)
LEHENTASUNA	Handia	KOSTUA	_____
ADIERAZLEAK			
ARDURA JARRAIPENA/ BETEARAZPENA	Alkatetza Bulego Teknikoa: Udal-arkitektoa		
FINANTZAKETA			

2.1.2. UDALAK ETA BERE ERAKUNDEEK GARATUTAKO PLAN ETA PROGRAMEN BETEARAZPEN, KOSTU ETA ERAGINARI BURUZKO INFORMAZIOAREN ITZULERAKO MEKANISMOAK DISEINATZEA.			
ILDOA	2.IE. KALITATEZKO INFORMAZIOA ESKURA IZATEA ETA HERRITARREN PARTAIDETZA SUSTATZEA		
PROGRAMA	2.1. Kalitatezko informazioa herritarren eskura.		
GAIKAKO EREMUA	KOMUNIKAZIOA HERRITARREN PARTAIDETZA, ELKARTEGINTZA ETA SENTSIBILIZAZIOA.		
AALBORG-EKO KONPROMISOA	1. GOBERNATZEKO MODUAK		
DESKRIBAPENA	Helburua udaleko plan eta programa nagusien esparruan bultzatutako ekimenen informazioa herritarren eskura jartzea da. Ildo honetan, herritarrek Udalak garatzen dituen programa eta planen bidez bultzatutako ekimen nagusien inpaktua ezagut dezatela lortu nahi da. Ekintza abiarazteko ekimenak honako hauek dira: - Udalak gauzatutako plan eta programen ebaluazio-faseetan informazio-eta komunikazio-prozedurak diseinatzea. - Beharrezko jakinarazpenak burutzea, metodo berritzaileak erabiliz.		
ALDIZKAKOTASUNA	Etengabea	BETEARAZTEKO EPEA	Ertaina (2016)
LEHENTASUNA	Ertaina	KOSTUA	_____
ADIERAZLEAK			
ARDURA JARRAIPENA/ BETEARAZPENA	Alkatetza Bulego Teknikoa: Udal-arkitektoa		
FINANTZAKETA			

2.1.3. UDAL-AURREKONTUAREKIN LOTUTAKO INFORMAZIOA HERRITARREN ESKU JARTZEA, ARLO OROKORRETAN BANAKATUTA.			
ILDOA	2.IE. KALITATEZKO INFORMAZIOA ESKURA IZATEA ETA HERRITARREN PARTAIDETZA SUSTATZEA		
PROGRAMA	2.1. Kalitatezko informazioa herritarren eskura.		
GAIKAKO EREMUA	KOMUNIKAZIOA HERRITARREN PARTAIDETZA, ELKARTEGINTZA ETA SENTSIBILIZAZIOA.		
AALBORG-EKO KONPROMISOA	1. GOBERNATZEKO MODUAK		
DESKRIBAPENA	Ekintza honen helburua udal-aurrekontuari buruzko informazioa herritarren esku jartzea da, arlo orokorretan banakatuta. Abiarazteko ekimenak honako hauek dira: · Udalerriko web-orrialdean udal-aurrekontua sartzea arlo orokorretan banakatuta (urtero). · Udal-aurrekontuak ezagutzeko prestakuntza-ekintzak sustatzea: gastuak, diru-sarrerak, banakatzea, etab.		
ALDIZKAKOTASUNA	Etengabea	BETEARAZTEKO EPEA	Laburra (2014)
LEHENTASUNA	Ertaina	KOSTUA	_____
ADIERAZLEAK			
ARDURA JARRAIPENA/ BETEARAZPENA	Alkatetza		
FINANTZAKETA			

2.2.1. UDAL POLITIKAKO ERABAKI KLABEETAN HERRITARREN PARTAIDETZA ETA ERABAKI MEKANISMOAK JARTZEA.			
ILDOA	2.IE. KALITATEZKO INFORMAZIOA ESKURA IZATEA ETA HERRITARREN PARTAIDETZA SUSTATZEA		
PROGRAMA	2.2. Herritarren eta udal-eragileen partaidetza aktiboa.		
GAIKAKO EREMUA	KOMUNIKAZIOA HERRITARREN PARTAIDETZA, ELKARTEGINTZA ETA SENTSIBILIZAZIOA.		
AALBORG-EKO KONPROMISOA	1. GOBERNATZEKO MODUAK 2. JASANGARRITASUNAREN ALDEKO UDAL KUDEAKETA		
DESKRIBAPENA	Ekintzaren helburua plan eta programentzako herritarren partaidetza-eredua zehaztea da. Horrek partaidetza-eredu egonkor, jasangarri eta irisgarriko joera izatea esan nahi du, herritarren intereseko irizpideen eta partaidetza-irizpide metodologikoen arabera, udal-egitura, erakunde eta herritarren gaitasun eta nahiekin bat etorritik, herritarren partaidetza izan behar duten plan eta programak adostasunez zehaztuz. Abiarazteko ekimenak honako hauek dira: - Partaidetza-prozesuak barne hartuko dituzten plan eta programak zehaztea. - Plan eta programetarako partaidetza-eredua zehaztea. - Partaidetza-prozesuetako metodo berritzaileak barne hartzea. - Partaidetza-prozesuak/partaidetza-batzarrak garatzea.		
ALDIZKAKOTASUNA	Etengabea	BETEARAZTEKO EPEA	Luzea (2013-2020)
LEHENTASUNA	Handia	KOSTUA	80.000€ 2013: 10.000€ 2014: 10.000€ 2015: 10.000€ 2016: 10.000€ 2017: 10.000€ 2018: 10.000€ 2019: 10.000€ 2020: 10.000€
ADIERAZLEAK	16. adierazlea: Herritarren Sentsibilizazioa eta Partaidetza: - Helburu gisa herritarren partaidetza duten udaleko organo egonkorren batzar-kopurua. - Batzar guztietako parte-hartzaile kopuruaren batura.		
ARDURA JARRAIPENA/ BETEARAZPENA	Alkatetza		
FINANTZAKETA			

2.2.2. UDALAK SUSTATUTAKO POLITIKEN AHOHKULARITZAN ALDIZKA GAIAN ADITUAK DIREN ERAGILEAK SARTZEA, ETA BAITA ARAZOAREN GIZARTE-EZAGUTZA ERE.			
ILDOA	2.IE. KALITATEZKO INFORMAZIOA ESKURA IZATEA ETA HERRITARREN PARTAIDETZA SUSTATZEA		
PROGRAMA	2.2. Herritarren eta udal-eragileen partaidetza aktiboa.		
GAIKAKO EREMUA	KOMUNIKAZIOA HERRITARREN PARTAIDETZA, ELKARTEGINTZA ETA SENTSIBILIZAZIOA.		
AALBORG-EKO KONPROMISOA	1. GOBERNATZEKO MODUAK 2. JASANGARRITASUNAREN ALDEKO UDAL KUDEAKETA		
DESKRIBAPENA	Ekintza honen helburua Udalak sustatutako politiken aholkularitzan aldizka gaian adituak diren eragileak sartzeta da, eta baita arazoaren gizarte-ezagutza ere. Ekintza abiarazteko ekimenak honako hauek dira: - Udalerriko errealitate fisikoa, hirigintza-errealitatea, errealitate soziala, kulturala eta ekonomikoa ezagutzen duten pertsonak tokiko aditu gisa sartzeta. - Tokiko eta/edo sektoreko enpresa-elkarteak (industria, merkataritza,...) eta udalerrian esanguratsuak diren enpresak: enpresa traktoreak - Interes publikodun (Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, Sozietate Publikoak...) edo pribatudun udalaz gaineko eragileak. - Udaleko prestakuntza-zentroak, bazterketa-arriskuan dauden taldeen eta aniztasun funtzionala duten pertsonen laneratzean espezializatutako erakundeak, LANBIDE. - Udalerrian dauden interesen ikuspegi politiko eta komunitate ezberdinak ordezkatzen dituzten gizarte-eragile interesgarriak.		
ALDIZKAKOTASUNA	Etengabea	BETEARAZTEKO EPEA	Luzea (2013-2020)
LEHENTASUNA	Handia	KOSTUA	20.000€ 2013: 2.500€ 2014: 2.500€ 2015: 2.500€ 2016: 2.500€ 2017: 2.500€ 2018: 2.500€ 2019: 2.500€ 2020: 2.500€
ADIERAZLEAK			
ARDURA JARRAIPENA/ BETEARAZPENA	Alkatetza		
FINANTZAKETA			

2.2.3. GAZTEEN PARTAIDETZA SUSTATZEA.			
ILDOA	2.IE. KALITATEZKO INFORMAZIOA ESKURA IZATEA ETA HERRITARREN PARTAIDETZA SUSTATZEA		
PROGRAMA	2.2. Herritarren eta udal-eragileen partaidetza aktiboa.		
GAIKAKO EREMUA	KOMUNIKAZIOA HERRITARREN PARTAIDETZA, ELKARTEGINTZA ETA SENTSIBILIZAZIOA.		
AALBORG-EKO KONPROMISOA	1. GOBERNATZEKO MODUAK 2. JASANGARRITASUNAREN ALDEKO UDAL KUDEAKETA		
DESKRIBAPENA	Ekintza honen helburua udalerriko garapen jasangarriari buruzko erabakiak hartzeko prozesuetan gazteen partaidetza-gune errealak bermatzea da, informazioaren eta sentsibilizazioaren bidez. Abiarazi beharreko ekimenak honako hauek dira: · Tokiko Agenda 21eko herritarren partaidetzarako foroetan sektore gazteenen partaidetza sustatzea. · Aldizka, gazteekin topaketak antolatzea, gai honi buruz dituzten iritziak ezagutu eta Udal Administrazioaren eta Tokiko Agenda 21en ezarritako partaidetza-organoen aurrean jasota geratzeko. · Tokiko Agenda 21 gazteen artean hedatzea. · Sentsibilizazio-ekintzak burutzea, web-orrialdearen bidez eta enpresen ekimenak hedatzeko bide zehatza landuz. · Ingurumenaren eta jasangarritasunaren arloan modulu, ikastaro eta tailerrak burutzea. · Tokiko Agenda 21eko helburuak eta jarduera-ildoak batzea, sailetik sustatutako programa eta jardueretan, zeharkakotasuna sustatzearen mesedetan.		
ALDIZKAKOTASUNA	Etengabea	BETEARAZTEKO EPEA	Luzea (2013-2020)
LEHENTASUNA	Handia	KOSTUA	21.000€ 2014: 3.000€ 2015: 3.000€ 2016: 3.000€ 2017: 3.000€ 2018: 3.000€ 2019: 3.000€ 2020: 3.000€
ADIERAZLEAK	16. adierazlea: Herritarren Sentsibilizazioa eta Partaidetza: · Helburu gisa herritarren partaidetza duten udaleko organo egonkorren batzar-kopurua. · Batzar guztietako parte-hartzaile kopuruaren batura.		
ARDURA JARRAIPENA/ BETEARAZPENA	Gazteria eta Kirol Saila		
FINANTZAKETA			

2.2.4. BARNEKO LANGILEAK PARTAIDETZA-PROZESUEI BURUZ TREBATU ETA SENTSIBILIZATZEA.			
ILDOA	2.IE. KALITATEZKO INFORMAZIOA ESKURA IZATEA ETA HERRITARREN PARTAIDETZA SUSTATZEA		
PROGRAMA	2.2. Herritarren eta udal-eragileen partaidetza aktiboa.		
GAIKAKO EREMUA	KOMUNIKAZIOA HERRITARREN PARTAIDETZA, ELKARTEGINTZA ETA SENTSIBILIZAZIOA.		
AALBORG-EKO KONPROMISOA	1. GOBERNATZEKO MODUAK		
DESKRIBAPENA	Ekintzaren helburua barneko langileen trebakuntzarako partaidetza-prozesuei buruzko plana burutzea da. Abiarazi beharreko ekimenak honako hauek dira: - Partaidetza-prozesuei buruzko trebakuntzak eskatzen duen ezagutza teoriko eta teknikoen arteko konparazio-azterlana eta tokiko administrazioko taldea osatzen duten pertsona guztien curriculum-hornidura, beren aholkularitza-lana eta administrazio-lana garatzeko trebakuntza hobetu dezaketen trebakuntza-jarduerak identifikatuz. Azterlana honako hauen bidez burutu daiteke: - Prestakuntza-beharren antzematea, galdetegi eta/edo elkarrizketa pertsonalak burutuz. - Bertako eta/edo prestakuntza eskaintzen duten beste erakunde batzuekin koordinazioan prestakuntza-programa egitea. - Jardueren jarraipena eta ebaluazioa egitea programa hobetzeko.		
ALDIZKAKOTASUNA	Etengabea	BETEARAZTEKO EPEA	Luzea (2013-2020)
LEHENTASUNA	Ertaina	KOSTUA	_____
ADIERAZLEAK			
ARDURA JARRAIPENA/ BETEARAZPENA	Alkatetza.		
FINANTZAKETA			

2.3.1. ELKARTE-SAREAN KOHESIO HANDIAGOA SUSTATZEA, ELKARTEEN ARTEKO HARREMANAK ETA KOMUNIKAZIOA INDARTZEKO			
ILDOA	2.IE. KALITATEZKO INFORMAZIOA ESKURA IZATEA ETA HERRITARREN PARTAIDETZA SUSTATZEA		
PROGRAMA	2.3. Udalerriko elkarte-sarea bultzatzea		
GAIKAKO EREMUA	KOMUNIKAZIOA HERRITARREN PARTAIDETZA, ELKARTEGINTZA ETA SENTSIBILIZAZIOA.		
AALBORG-EKO KONPROMISOA	9. BERDINTASUN ETA JUSTIZIA SOZIALA		
DESKRIBAPENA	Ekintza honen helburua elkarte-sarearen kohesio handiagoa sustatzea da, komunikazioa eta koordinazioa eta udalerriko elkartearen jardueren baterako antolaketa sustatzeko asmoz, herritarren partaidetza hobetzeko. Abiarazi beharreko ekimenak honako hauek dira: · Elkarrekin sektorekako batzarrak edo elkarte guztien arteko batzarrak egitea lankidetzat indartzeko. · Guztientzako jarduerak diseinatzea eta jarduerak hedatzea web-ataria, gizarte-sareak edo beste edozein bide egoki erabiliz. · Erakargarrienak izan daitezkeen jardueren azterketa egitea. · Elkarrekin eta kirol-jarduera, aisialdi-jarduera eta jarduera kulturaleri buruzko informazioa batuko duten web-orrialdea eta gizarte-sareetako taldea sortzea. · Web-orrialde hori hedatzea. · Zalantzak argitu, proposamenak eta/edo kexak biltzeko eta abarretarako bide dinamiko eta biziak sortzea. Laburbilduz, udaleko lana elkarrekin hurbilaztea.		
ALDIZKAKOTASUNA	Etengabea	BETEARAZTEKO EPEA	Luzea (2013-2020)
LEHENTASUNA	Handia	KOSTUA	Sailaren barnean
ADIERAZLEAK			
ARDURA JARRAIPENA/ BETEARAZPENA	Kultura Saila		
FINANTZAKETA			

2.3.2. UDAL-EKIPAMENDU ETA LOKALAK ETA BEREN ERABILERA AZTERTZEA.			
ILDOA	2.IE. KALITATEZKO INFORMAZIOA ESKURA IZATEA ETA HERRITARREN PARTAIDETZA SUSTATZEA		
PROGRAMA	2.3. Udalerriko elkarte-sarea bultzatzea		
GAIKAKO EREMUA	HEZKUNTZA, EUSKARA, KULTURA ETA KIROLA		
AALBORG-EKO KONPROMISOA	1. GOBERNATZEKO MODUAK 9. BERDINTASUN ETA JUSTIZIA SOZIALA		
DESKRIBAPENA	Ekintza honen helburua udal-ekipamendu eta lokalak eta beren erabilera aztertzea da. Abiarazi beharreko ekimenak honako hauek dira: - Udalak dituen lokal eta ekipamendu guztien eta ematen zaien erabileraren inbentarioa egitea. - Udalerrian lokalen erabilerari dagokionez dagoen eskaerari buruzko txostena egitea.		
ALDIZKAKOTASUNA	Zehatza	BETEARAZTEKO EPEA	Ertaina (2015)
LEHENTASUNA	Handia	KOSTUA	_____
ADIERAZLEAK			
ARDURA JARRAIPENA/ BETEARAZPENA	Bulego Teknikoa Udal-arkitektoa Udal-eraikinetako arkitektoak Gazteria eta Kirolak Saila, Kultura Saila Kultura teknikaria Gazteria eta Kirol teknikaria Ondarea		
FINANTZAKETA			

2.4.1. JASANGARRITASUNA ETA KONTSUMO ARDURATSUAREN BALIOETAN PRESTAKUNTZA, INFORMAZIO ETA SENTSIBILIZAZIOKO EKINTZAK INDARTzea.			
ILDOA	2.IE. KALITATEZKO INFORMAZIOA ESKURA IZATEA ETA HERRITARREN PARTAIDETZA SUSTATZEA		
PROGRAMA	2.4. Jasangarritasunaren gaian sentsibilizatzea eta baterako erantzukizuna sustatzea.		
GAIKAKO EREMUA	KOMUNIKAZIOA HERRITARREN PARTAIDETZA, ELKARTEGINTZA ETA SENTSIBILIZAZIOA.		
AALBORG-EKO KONPROMISOA	4. KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK		
DESKRIBAPENA	Ekintzaren helburua jasangarritasuna eta kontsumo arduratsuaren balioetan prestakuntza, informazio eta sentsibilizazioko ekintzak indartzea da. Ekintza abiarazteko ekimenak honako hauek dira: - Urtero sentsibilizazioko eta prestakuntzako programa diseinatzea, jasangarritasunaren aldagaiak kontuan hartuz eta abiarazteko dinamizatzea. Programa urtean zehar landu nahi diren helburu eta gaiak/balioak kontuan hartuz egingo da. Bestalde, ekimen zehatzak diseinatuko dira, programak helburutzat duen biztanleria-segmentua kontuan hartuz. - Sentsibilizazio-programak beste ekimen batzuen artean, ikastetxeetan gai horiek lantzea barne hartuko du, Eskolako Agenda 21en bidez. - Ekintza eta gai horiek Erosketa eta Kontratazio Publiko Berde Jasangarrian sartzea, Udaleko langileak prestatu eta kontzientziatzeko.		
ALDIZKAKOTASUNA	Etengabea	BETEARAZTEKO EPEA	Ertaina (2016)
LEHENTASUNA	Handia	KOSTUA	18.000€ 2015: 3.000€ 2016: 3.000€ 2017: 3.000€ 2018: 3.000€ 2019: 3.000€ 2020: 3.000€
ADIERAZLEAK	16. adierazlea: Herritarren Sentsibilizazioa eta Partaidetza: - Udalerrian gauzatzen diren ingurumen-hezkuntzako jardueren kopurua. - Udalerrian gauzatzen diren ingurumen-hezkuntzako jardueretan parte hartzen duten pertsona-kopurua. - Kontsumo jasangarritako hezkuntza-kanpainetarako aurrekontua.		
ARDURA JARRAIPENA/ BETEARAZPENA	Tokiko Agenda 21eko Arloa		
FINANTZAKETA			

2.4.2. ZERBITZU PUBLIKOEN KOSTUA ETA HERRITARREN ESKUBIDE ETA BETEBEHARREI BURUZKO INFORMAZIOA ETA KONTZIENTZIAZIOA.			
ILDOA	2.IE. KALITATEZKO INFORMAZIOA ESKURA IZATEA ETA HERRITARREN PARTAIDETZA SUSTATZEA		
PROGRAMA	2.4. Jasangarritasunaren gaian sentsibilizatzea eta baterako erantzukizuna sustatzea.		
GAIKAKO EREMUA	KOMUNIKAZIOA HERRITARREN PARTAIDETZA, ELKARTEGINTZA ETA SENTSIBILIZAZIOA.		
AALBORG-EKO KONPROMISOA	1. GOBERNATZEKO MODUAK		
DESKRIBAPENA	Ekintza honen helburua herritarrak hainbat erako zerbitzuak eskaintzeko Udalak egiten duen ahalegin ekonomikoaren jakitun egitea da Halaber, Durangon bizitzeagatik herritarrek dituzten eskubide eta betebeharrei buruz kontzientziatu behar dira. Ekintza abiarazteko ekimenak honako hauek dira: - Udalaren ordainagiritan zerbitzuaren kostu erreala eta erabiltzaileak benetan ordaintzen duena adieraztea (adibidez: kiroldegia, liburutegia, ur-kontsumoaren ordainagiria, etab.). 2.4.1 ekintzari dagokionez, herritarrek dituzten eskubide eta betebeharrei buruzko sentsibilizazio-kanpainak egitea.		
ALDIZKAKOTASUNA	Etengabea	BETEARAZTEKO EPEA	Ertaina (2015)
LEHENTASUNA	Ertaina	KOSTUA	60.000€
ADIERAZLEAK			
ARDURA JARRAIPENA/ BETEARAZPENA	Alkatetza		
FINANTZAKETA			

2.5.1. BELAUNALDIEN ARTEKO HARREMANA ETA ELKARLANA SUSTATUKO DUTEN EKIMEN ETA DINAMIKA SOZIALAK BULTZATZEA.			
ILDOA	2.IE. KALITATEZKO INFORMAZIOA ESKURA IZATEA ETA HERRITARREN PARTAIDETZA SUSTATZEA		
PROGRAMA	2.5. Belaunaldien arteko harremanak sustatzea		
GAIKAKO EREMUA	GIZARTE ONGIZATEA ETA GIZARTERATZEA		
AALBORG-EKO KONPROMISOA	1. GOBERNATZEKO MODUAK 9. BERDINTASUN ETA JUSTIZIA SOZIALA		
DESKRIBAPENA	Ekintza honen helburua belaunaldien arteko harremana eta elkarlana sustatuko duten ekimen eta dinamika sozialak bultzatzea da. - Belaunaldien arteko harremanak sustatuko dituzten jarduera kulturalak, kirol-jarduerak eta aisialdi-jarduerak diseinatu eta bultzatzea. - Taldeen arteko jardueren sustapenean elkarte-sare sozialari laguntza ematea. - Gazteentzako zentroak, institutuak, lehen mailako ikastetxeak, etab., beste adin-talde batzuekin egiteko jardueretara zabaltzea. - Boluntarioentzako eta elkarte-sarearentzako prestakuntza-ikastaroak antolatzea. - Hezkuntzako langileentzako, lehen mailan, zein bigarren mailan dabilzanentzako, ikastetxeetako jardueretan belaunaldien arteko topaketak sartzearen garrantziari buruzko kanpaina zehatzak egitea: ikastetxeetako zuzendariak; eskola-kontseiluak; Guraso Elkarateak; Eskolako Agenda 21. - Helburu hori lortzera bideratutako beste edozein ekintza.		
ALDIZKAKOTASUNA	Etengabea	BETEARAZTEKO EPEA	Luzea (2013-2020)
LEHENTASUNA	Ertaina	KOSTUA	80.000€ 2013: 10.000€ 2014: 10.000€ 2015: 10.000€ 2016: 10.000€ 2017: 10.000€ 2018: 10.000€ 2019: 10.000€ 2020: 10.000€
ADIERAZLEAK			
ARDURA JARRAIPENA/ BETEARAZPENA	Gazteria eta Kirolak Saila, Gizarte Ekintza		
FINANTZAKETA			

2.5.2. PERTSONA NAGUSI AKTIBOEN BOLUNTARIOTZA INDARTZEA.			
ILDOA	2.IE. KALITATEZKO INFORMAZIOA ESKURA IZATEA ETA HERRITARREN PARTAIDETZA SUSTATZEA		
PROGRAMA	2.5. Belaunaldien arteko harremanak sustatzea		
GAIKAKO EREMUA	GIZARTE ONGIZATEA ETA GIZARTERATZEA		
AALBORG-EKO KONPROMISOA	1. GOBERNATZEKO MODUAK 9. BERDINTASUN ETA JUSTIZIA SOZIALA		
DESKRIBAPENA	Ekintza honen helburua pertsona nagusi aktiboen borondatezko lana indartzea da. Ekintza abiarazteko ekimenak honako hauek izan litezke: - Pertsona nagusiak boluntariotza-proiektuetan partaide izatea, adibidez zahartze aktiborako programa edo esperientziaren institutuaren bidez. - Boluntarioei borondatezko jarduera garatzeko prestakuntza egokia ematea. - Pertsona nagusiei lagun egiteko programa abiaraztea boluntariotza sozialaren bidez (Lagunkide Programa).		
ALDIZKAKOTASUNA	Etengabea	BETEARAZTEKO EPEA	Luzea (2013-2020)
LEHENTASUNA	Handia	KOSTUA	96.000€ 2013: 12.000€ 2014: 12.000€ 2015: 12.000€ 2016: 12.000€ 2017: 12.000€ 2018: 12.000€ 2019: 12.000€ 2020: 12.000€
ADIERAZLEAK			
ARDURA JARRAIPENA/ BETEARAZPENA	Gizarte Ekintza Saila		
FINANTZAKETA			

3.1.1. DURANGALDEKO ENPLEGUAREN ESKUALDEKO PLANAREN GARAPENA BULTZATZEA.			
ILDOA	3. IE. GARAPEN EKONOMIKO DIBERTSIFIKATU ETA JASANGARRIA		
PROGRAMA	3.1. Lehiakortasuna eta enplegua hobetzea		
GAIKAKO EREMUA	LAN-MERKATUA:		
AALBORG-EKO KONPROMISOA	8. TOKIKO EKONOMIA BIZI ETA JASANGARRIA 9. BERDINTASUN ETA JUSTIZIA SOZIALA		
DESKRIBAPENA	Ekintzaren helburua Durangoko Udalak 2013ko Durangaldeko Eskualdeko Enplegu Planean zehaztutako ekintzen garapena bultzatu ahal izatea da. Planaren helburua enpleguaren sorrera eta eskualdeko enplegarritasuna hobetzeko aukera emango duten proiektu eta ekintzak ezartzea da, eta beraz, Udalak plana bultzatzeak Durangon ekintza horiek ezartzea erraztuko du. Horretarako, Durangaldeko Eskualdeko Enplegu Planean oinarritutako ekimen hauek zehazten dira: - Parte hartzen duten eragileekin ekintzak garatzeko koordinazioa eta lankidetzak.		
ALDIZKAKOTASUNA	Etengabea	BETEARAZTEKO EPEA	Luzea (2013-2020)
LEHENTASUNA	Ertaina	KOSTUA	160.000€
ADIERAZLEAK	11. adierazlea: Langabezia-tasa: - Langabezia-tasa. - Emakumeen langabezia-tasa.		
ARDURA JARRAIPENA/ BETEARAZPENA	Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa		
FINANTZAKETA			

3.1.2. ENPRESA ETA ERAGILEEN ARTEKO LANKIDETZA-SAREETAN UDALAK PARTAIDETZA AKTIBOA IZATEA, SEKTOREETAKO ENPRESEN LEHIAKORTASUNA ETA ENPLEGUAREN SORRERA BULTZATZEKO.			
ILDOA	3.IE. GARAPEN EKONOMIKO DIBERTSIFIKATU ETA JASANGARRIA		
PROGRAMA	3.1. Lehiakortasuna eta enplegua hobetzea		
GAIKAKO EREMUA	JARDUERA EKONOMIKOAREN EGITURA ETA MAILA		
AALBORG-EKO KONPROMISOA	8. TOKIKO EKONOMIA BIZI ETA JASANGARRIA 9. BERDINTASUN ETA JUSTIZIA SOZIALA		
DESKRIBAPENA	Ekintza honen helburua Eskualdeko edo Durangoko enpresen arteko sare eta foroetan Udalaren eta interesgarriak izan litezkeen beste eragile batzuen parte-hartzea sustatzea da, partaidetza aktibo horrek oro har, enpresen lehiakortasuna bultzatu eta enplegua sortuko duten ekimenen abiaraztea ekar dezan. Horretarako, ekimen hauek proposatzen dira: Ordezkaritza politiko, zein teknikarien partaidetza aktiboa foro edo sareetan, lankidetzak sustatzeko eta sektoreetan arlo ekonomikoan eta enpleguaren arloan ekimen berrien proposamena eta abiaraztea sustatzeko.		
ALDIZKAKOTASUNA	Etengabea	BETEARRAZTEKO EPEA	Luzea (2013-2020)
LEHENTASUNA	Handia	KOSTUA	_____
ADIERAZLEAK			
ARDURA JARRAIPENA/ BETEARRAZPENA	Alkatetza		
FINANTZAKETA			

3.1.3. JARDUERA EKONOMIKOEN SORTUTAKO ERAGINAK ZAINTEA, EZARRITAKO MEKANISMOEN ARABERA.			
ILDOA	3.IE. GARAPEN EKONOMIKO DIBERTSIFIKATU ETA JASANGARRIA		
PROGRAMA	3.1. Lehiakortasuna eta enplegua hobetzea		
GAIKAKO EREMUA	JARDUERA EKONOMIKOAREN EGITURA ETA MAILA		
AALBORG-EKO KONPROMISOA	8. TOKIKO EKONOMIA BIZI ETA JASANGARRIA 9. BERDINTASUN ETA JUSTIZIA SOZIALA		
DESKRIBAPENA	Ekintzaren helburua batez ere, udalerrian jarduera ekonomikoek sortutako inpaktuak kuantitatiboki eta kualitatiboki neurtzea da, inpaktu horiek inpaktu sozialak, ingurumen-inpaktuak eta inpaktu ekonomikoak izango dira. Horretarako, ekimen hauek zehazten dira: · Durangon kokatuta dauden jarduera ekonomikoen inpaktuak neurtu ahal izateko adierazleak izango dituen jarraipen-sistema ezartzea. · Sortutako inpaktu kaltegarriak murrizteko bidea emango duten neurriak zehaztu eta abiaraztea.		
ALDIZKAKOTASUNA	Etengabea	BETEARRAZTEKO EPEA	Luzea (2013-2020)
LEHENTASUNA	Ertaina	KOSTUA	_____
ADIERAZLEAK			
ARDURA JARRAIPENA/ BETEARAZPENA	Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa		
FINANTZAKETA			

3.2.1. TOKIKO PRODUKTU EKOLOGIKOEN MERKATURATZEA BULTZATZEA.			
ILDOA	3.IE. GARAPEN EKONOMIKO DIBERTSIFIKATU ETA JASANGARRIA		
PROGRAMA	3.2. Lehen sektorea bultzatzea		
GAIKAKO EREMUA	EGITURA EKONOMIKOA LEHEN SEKTOREA		
AALBORG-EKO KONPROMISOA	8. TOKIKO EKONOMIA BIZI ETA JASANGARRIA 9. BERDINTASUN ETA JUSTIZIA SOZIALA		
DESKRIBAPENA	Ekintzaren helburua tokiko produktu ekologikoen merkaturatzea bultzatzeko ekimenak zehaztu eta abian jartzea da, herritarren artean kontsumoa bultzatuz, produktu ekologikoa zabal dadin. Horretarako ekimen hauek proposatzen dira: - Arlo honetan dauden eragileen arteko lankidetzak sustatzea, bereziki Urkiola Landa Garapenerako Elkartea, nekazaritza-sindikatuak eta +Dendak Merkataritza Elkarteen bidez, udalerrian eta eskualdean mota honetako produktuen merkaturatzea erraztu eta bultzatuko duten ekintzak proposatu eta abian jartzeko. Koordinazioa zuzeneko foro eta sareak sortu eta sustatuz indartu daiteke. - Durangoko Udalaren zeregin aktiboa indartzea eragileei dagokienez, beraien parte-hartzearen bidez. - Beste mekanismo-mota batzuk garatzea eragile ekonomikoen artean komunikazioa eta koordinazioa hobetzeko.		
ALDIZKAKOTASUNA	Etengabea	BETEARRAZTEKO EPEA	Luzea (2013-2020)
LEHENTASUNA	Ertaina	KOSTUA	_____
ADIERAZLEAK	11. adierazlea: Langabezia-tasa: - Langabezia-tasa. - Emakumeen langabezia-tasa.		
ARDURA JARRAIPENA/ BETEARRAZPENA	Alkatetza		
FINANTZAKETA			

3.2.2. TOKIKO EKOIZLEEN ETA MERKATARITZA ETA OSTALARITZAKO SEKTOREEN ARTEKO SAREKO LANA.			
ILDOA	3.IE. GARAPEN EKONOMIKO DIBERTSIFIKATU ETA JASANGARRIA		
PROGRAMA	3.2. Lehen sektorea bultzatzea		
GAIKAKO EREMUA	EGITURA EKONOMIKOA LEHEN SEKTOREA		
AALBORG-EKO KONPROMISOA	8. TOKIKO EKONOMIA BIZI ETA JASANGARRIA 9. BERDINTASUN ETA JUSTIZIA SOZIALA		
DESKRIBAPENA	Ekintza honen helburua Durangoko Udalak arlo honetan eragileen arteko koordinazioa eta sareko lana indartzea da, foroak eta beste bitarteko batzuen bidez, tokiko ekoizleen produktuak Durangoko merkataritza-sektorerara eta ostalaritza-sektorerara heldu eta bertan banatzeko aukera emango duten proposamenak eta ekimenak garatzeko topagune gisa. Horretarako, ekimen hauek zehazten dira: - Arlo honetan oinarrizko eragileak identifikatzea. - Eragile horien artean lan koordinatuko dinamika ezartzea, foroen bidez, zein guztien arteko hausnarketa eta kooperazioa sustatuko duten beste bitarteko batzuen bidez. - Estatuan, zein nazioartean beste eragile batzuek garatutako jardunbide egokiak identifikatzea. - Ekintza proposatzea, eta ekintza horiek antolatzea abian jartzeko. Ekintza honek aurreko ekintzarekin (3.2.1) lotura handia du.		
ALDIZKAKOTASUNA	Etengabea	BETEARAZTEKO EPEA	Luzea (2013-2020)
LEHENTASUNA	Ertaina	KOSTUA	65.000€ 2014: 9.000€ 2015: 9.000€ 2016: 9.000€ 2017: 9.000€ 2018: 9.000€ 2019: 10.000€ 2020: 10.000€
ADIERAZLEAK			
ARDURA JARRAIPENA/ BETEARAZPENA	Alkatetza		
FINANTZAKETA			

3.2.3. TOKIKO PRODUKTUEN EROSKETARI BURUZKO SENTSIBILIZAZIO ETA KONTZIENTZIAZIOA.			
ILDOA	3.IE. GARAPEN EKONOMIKO DIBERTSIFIKATU ETA JASANGARRIA		
PROGRAMA	3.2. Lehen sektorea bultzatzea.		
GAIKAKO EREMUA	EGITURA EKONOMIKOA LEHEN SEKTOREA		
AALBORG-EKO KONPROMISOA	8. TOKIKO EKONOMIA BIZI ETA JASANGARRIA 9. BERDINTASUN ETA JUSTIZIA SOZIALA		
DESKRIBAPENA	Ekintzaren helburua Durangoko tokiko produktuak erostearen garrantziari buruzko herritarren kontzientziazioa gehitzea da, horrek udalerriko ingurumen-jasangarritasunean, jasangarritasun sozialean eta ekonomikoan duen eragin onuragarriagatik. Horretarako, ekimen hauek proposatzen dira: - Arlo honetako oinarrizko eragileak partaide egitea herritarren sentsibilizazioa gehitzeko aukera emango duten ekimenak garatzeko. Aurrez proposatutako sareko lana izan liteke horretarako esparrua (3.2.2 ekintza). - Helburu argiak, garatu beharreko ekintzak eta lortutako emaitzak neurtzeko aukera emango duten adierazleak zehaztea ahalbidetuko duen komunikazio-plana garatzea. Komunikazio-planak honako ekintza hauek barne hartu ditzake: - Marketineko eta komunikazioko kanpainak. - Denentzako fidelizazio-programak garatzea. - Lankidetzeta-plataformak garatzea. - Ekitaldien antolaketa; adibidez, jolasen bidez landa-jarduera bultzatzeko ekimenak.		
ALDIZKAKOTASUNA	Etengabea	BETEARAZTEKO EPEA	Luzea (2013-2020)
LEHENTASUNA	Ertaina	KOSTUA	16.000€ 2014: 2.000€ 2015: 2.000€ 2016: 2.000€ 2017: 2.500€ 2018: 2.500€ 2019: 2.500€ 2020: 2.500€
ADIERAZLEAK			
ARDURA JARRAIPENA/ BETEARAZPENA	Alkatetza		
FINANTZAKETA			

3.3.1. DURANGALDEKO LEHIAKORTASUN POLOA BULTZATZEA.			
ILDOA	3.IE. GARAPEN EKONOMIKO DIBERTSIFIKATU ETA JASANGARRIA		
PROGRAMA	3.3. Industria-sektorea bultzatzea.		
GAIKAKO EREMUA	EGITURA EKONOMIKOA INDUSTRIAREN SEKTOREA		
AALBORG-EKO KONPROMISOA	8. TOKIKO EKONOMIA BIZI ETA JASANGARRIA 9. BERDINTASUN ETA JUSTIZIA SOZIALA		
DESKRIBAPENA	Ekintza honen helburua Durangoko sektore industrialeko enpresak laguntzea da, Durangaldeko Lehiakortasun Poloaren bidez. Bere helburua, besteak beste, enpresen lehiakortasuna hobetzea eta enpresak berritzea da, horretarako enpresei zerbitzuak eskainiz, hala nola, diagnostikoak, aholkularitza, etab. Ondorioz, zeregin nagusia Lehiakortasun Poloaren funtzionamendua bultzatzea izango da, Durangoko enpresa industrialentzako beharrezko laguntza eskaintzen jarrai dezan.		
ALDIZKAKOTASUNA	Etengabea	BETEARAZTEKO EPEA	Luzea (2013-2020)
LEHENTASUNA	Handia	KOSTUA	
ADIERAZLEAK	9. adierazlea: Ingurumena Kudeatzeko Sistemak udalerrian: - Ingurumena kudeatzeko sistemen ezarpen-maila (ISO 14001, EMAS, Ekoscan, Jasangarritasun Txostenak) enpresa handietan eta ETEetan. 21. adierazlea: Bizitasun ekonomikoa: - Enpresen sorketa-Estabezimenduen saldo garbia.		
ARDURA JARRAIPENA/ BETEARAZPENA	Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa		
FINANTZAKETA			

3.4.1. MERKATARITZA-SEKTOREA ETA ZERBITZUEN SEKTOREA KOKATZEN DIREN LEKUETAKO HIRI-ESPASIOA ETA HIRI-AZPIEGITURAK HOBETZEA.			
ILDOA	3.IE. GARAPEN EKONOMIKO DIBERTSIFIKATU ETA JASANGARRIA		
PROGRAMA	3.4. Merkataritza Biziberritzeko Plana betearaztea		
GAIKAKO EREMUA	EGITURA EKONOMIKOA HIRUGARREN SEKTOREA		
AALBORG-EKO KONPROMISOA	8. TOKIKO EKONOMIA BIZI ETA JASANGARRIA 9. BERDINTASUN ETA JUSTIZIA SOZIALA		
DESKRIBAPENA	Ekintzaren helburua egun Durangoko Zentroek osatzen dituzten azpiegitura eta espazioen kalitatea hobetu eta udalerrriaren erakargarritasuna eta bisitarien joan-etorria gehitzen laguntzen duten elementu gisa integratzea da, merkataritza-establezimendu gehienak dauden tokien egokitzapenaren bidez. Horretarako, Durangoko Merkataritza Biziberritzeko Planean bildutako ekimen hauek zehazten dira: · Durangoko Hiriguneko Bideak tratatzeko Proposamena. (Ermodo, Kurutziaga, Oiz kalea, FJ Zumarraga,...) · Aparkalekuen Hornidura eta Kudeaketa Hobetzea (Egoiliarrak eta Txandaketa). · Merkataritza-inguruan eta merkataritza-hornidura duten barneko bide-banatzaille nagusienetan jarduteko proposamenak. · Altzarietan beste hobekuntza batzuk.		
ALDIZKAKOTASUNA	Etengabea	BETEARAZTEKO EPEA	Luzea (2013-2020)
LEHENTASUNA	Handia	KOSTUA	5.000.000€
ADIERAZLEAK	1. adierazlea: eremu publiko ireki eta zerbitzuen eremu publikoak edukitzea. · Oinarrizko zerbitzuak izatea: elikadura		
ARDURA JARRAIPENA/ BETEARAZPENA	Bulego Teknikoa Udal-arkitektoa		
FINANTZAKETA			

3.4.2. MERKATARITZA-ESTABLEZIMENDUEN BERRIKUNTZA ERRAZTU ETA SUSTATZEA.			
ILDOA	3.IE. GARAPEN EKONOMIKO DIBERTSIFIKATU ETA JASANGARRIA		
PROGRAMA	3.4. Merkataritza Biziberritzeko Plana betearaztea		
GAIKAKO EREMUA	EGITURA EKONOMIKOA HIRUGARREN SEKTOREA		
AALBORG-EKO KONPROMISOA	8. TOKIKO EKONOMIA BIZI ETA JASANGARRIA 9. BERDINTASUN ETA JUSTIZIA SOZIALA		
DESKRIBAPENA	Ekintza honen helburua establezimenduen (dendak, ostalaritza eta zerbitzu orokorrak) irudiaren berrikuntza-prozesua sustatzea da, saltokia hobetzeko ekintzak garatuz (ekipoetan inbertitzea, instalazioak berritzea eta kanpoko irudia hobetzea) merkataritza-jarduera mantentzeko oinarri gisa, udalerriko toki batzuetan bereziki eraginez. Sektoreko langileek sektoreko jarduera hobetzeko Administrazio Publikoek antolatutako diru-laguntza eta aholkularitzako bideak eskuratu ahal izatea bermatuz. Horretarako, Durangoko Merkataritza Biziberritzeko Planean bildutako ekimen hauek zehazten dira: · Laguntza-bideak zehaztu eta onestea, eta baita inguru lehiakorrera establezimenduak egokitzen dituzten merkataritzako ETEetan laguntza-bideak ezartzeko irizpideak ere. · Denboraldi luzeetan zehar urbanizatzeko obra orokorrak burutzen diren kale/bide/plazetan dauden merkataritza-establezimenduak bultzatzea. · Establezimenduetan egindako berritze onenak aintzat hartzeko saria ezartzea.		
ALDIZKAKOTASUNA	Etengabea	BETEARAZTEKO EPEA	Luzea (2013-2020)
LEHENTASUNA	Handia	KOSTUA	129.000€
ADIERAZLEAK	21. adierazlea: Bizitasun ekonomikoa: · Enpresen sorketa-Establezimenduen saldo garbia. 22. adierazlea: Eskaintza komertziala: · Eskaintza komertziala-azalera komertziala.		

ARDURA JARRAIPENA/ BETEARAZPENA	Alkatetza Bulego Teknikoa Udal-arkitektoa Durangoko Merkataritza Biziberritzeko Mahaia		
FINANTZAKETA			
3.4.1. DURANGO MERKATARITZA. ZERBITZU ETA AISIALDIAREN KOKALEKU GISA PROIEKTATZEA.			
ILDOA	3.IE. GARAPEN EKONOMIKO DIBERTSIFIKATU ETA JASANGARRIA		
PROGRAMA	3.4. Merkataritza Biziberritzeko Plana betearaztea		
GAIKAKO EREMUA	EGITURA EKONOMIKOA HIRUGARREN SEKTOREA		
AALBORG-EKO KONPROMISOA	8. TOKIKO EKONOMIA BIZI ETA JASANGARRIA 9. BERDINTASUN ETA JUSTIZIA SOZIALA		
DESKRIBAPENA	Ekintzaren helburua aisialdi eta/edo erosketako behar gehienak ase daitezkeen kalitatezko eta hurbileko eskaintza duen tokiko merkataritza dagoela zigilu komun baten bidez (marka komertziala) jakinaraztea da, bertan bizi direnak fidelizatu eta bezeroak ez direnen arreta erakartzera bideratutako ekintzak (sustapeneko jarduerak, animazioko jarduerak...) burutuz, eta baita aldizka udalerrira bisitariak ekarriko dituzten ekitaldiak (azokak, kale-agerraldiak...) garatuz ere. Horretarako, Durangoko Merkataritza Biziberritzeko Planean bildutako ekimen hauek zehazten dira: · Durangori beste batzuen aurrean hiri gisa, eta merkataritza eta zerbitzuen toki gisa ordezkatu ahal izateko Nortasun Bisuala ematea. · Hirigunea apaindu/girotzeko Ekitaldi Berezia antolatzea urtero.		
ALDIZKAKOTASUNA	Etengabea	BETEARAZTEKO EPEA	Luzea (2013-2020)
LEHENTASUNA	Handia	KOSTUA	162.000€
ADIERAZLEAK			
ARDURA JARRAIPENA/ BETEARAZPENA	Alkatetza Durangoko Merkataritza Biziberritzeko Mahaia		
FINANTZAKETA			

3.5.1. TURISMOAREN INDUSTRIARENTZAKO ESKUALDEKO ESTRATEGIAREN GARAPENA BULTZATZEA.			
ILDOA	3.IE. GARAPEN EKONOMIKO DIBERTSIFIKATU ETA JASANGARRIA		
PROGRAMA	3.5. Turismoaren industria bultzatzea.		
GAIKAKO EREMUA	EGITURA EKONOMIKOA HIRUGARREN SEKTOREA		
AALBORG-EKO KONPROMISOA	8. TOKIKO EKONOMIA BIZI ETA JASANGARRIA 9. BERDINTASUN ETA JUSTIZIA SOZIALA		
DESKRIBAPENA	Ekintza honen helburua turismoa hiru ardatzetan dinamizatu edo normalizatzea da: 1.- Sektore turistikoa: - Sektorearen harremanak hobetzeko ekintzak proposatu eta garatzea. Helmuga gisa Durangori buruz kontzientziatu eta sentsibilizatu behar da, turistari kalitatezko arreta eskaintzeko gai den sektore turistikoa indartsu eta lehiakorragoa sustatzea, horrela produktu eta zerbitzuen kontsumo handiagoa errazteko. 2.- Baliabideak, zerbitzuak eta produktu turistikoak: - Baliabide, zerbitzu eta produktu turistikoen inbentarioa egitea. - Kontsumo turistikorako izan daitezkeen baliabideen egoera aztertzea, irisgarritasun unibertsala, jasangarritasuna eta lortu nahi den posizionamenduaren irizpideetan oinarrituta. "Helmuga turistikoa ezin da helmuga turistikotzat hartu turistak egonaldi osoan zehar turista bezala jokatu ezin badu (tabernak, jatetxeak, museoak... irekitzea)" - Baliabideen normalizaziorako eta baliabideei balioa emateko ekintza-plana proposatu eta garatzea: Seinale egokiak eta baliabide turistikoak jende gehien dagoen data eta ordutegietan zabalik edukitzea. (adibidez: web-orrialdea hainbat hizkuntzatan, ostalaritza, museoak abuztuan irekitzea, etab.) - Sektore turistikoa eskaintza on line aitzindariak diren plataforma turistikoeetan sartuz sustatzen lagundu eta bultzatzea (Google maps, Minube, Apple Mapak, Yelp, Trip Advisor, Youtube, Panoramio, Instagram, EUS Basque Country, etab.). 3.- Oihartzun turistikoa duten ekitaldiak: - Interes turistikoa duten ekitaldi estrategikoen inbentarioa. - Oihartzun turistikoa duten ekitaldiei lotutako programa turistikoa garatzea.		
ALDIZKAKOTASUNA	Etengabea	BETEARAZTEKO EPEA	Luzea (2013-2020)
LEHENTASUNA	Handia	KOSTUA	150.000€
ADIERAZLEAK			
ARDURA JARRAIPENA/ BETEARAZPENA	Turismo Saila		
FINANTZAKETA			

3.5.2. DURANGORENTZAKO NAHI DEN POSIZIONAMENDUA ZEHAZTEA.			
ILDOA	3.IE. GARAPEN EKONOMIKO DIBERTSIFIKATU ETA JASANGARRIA		
PROGRAMA	3.5. Turismoaren industria bultzatzea.		
GAIKAKO EREMUA	EGITURA EKONOMIKOA HIRUGARREN SEKTOREA		
AALBORG-EKO KONPROMISOA	8. TOKIKO EKONOMIA BIZI ETA JASANGARRIA 9. BERDINTASUN ETA JUSTIZIA SOZIALA		
DESKRIBAPENA	Ekintza honen helburua Durangoren posizionamendua marka berriarekin eta transmititu nahi dituen balioekin elkartzea da. - Hiriaren marka berria eta bere claim-a inplementatu eta hiriak lortu nahi duen posizionamendua garatzeko ekintza-dinamika ezartzea: - Komunikazio-kanpainak eta sustapen-kanpainak online egitea, bai hiriaren marka berriarena, bai claim-arena ere Durango eta transmititu nahi dituen balioak ezagutzera emateko. - Sortzen diren euskarrietan hiriaren marka berria ezartzea. - Adierazleak identifikatzea lortutako emaitzak baloratzeko.		
ALDIZKAKOTASUNA	Etengabea	BETEARAZTEKO EPEA	Luzea (2013-2020)
LEHENTASUNA	Handia	KOSTUA	50.000€
ADIERAZLEAK			
ARDURA JARRAIPENA/ BETEARAZPENA	Turismo Saila		
FINANTZAKETA			

3.5.3. UDALERRIKO BALIABIDE TURISTIKOEI BALIOA EMATEA ETA BALIABIDEAK DINAMIZATZEA.	
ILDOA	3.IE. GARAPEN EKONOMIKO DIBERTSIFIKATU ETA JASANGARRIA
PROGRAMA	3.5. Turismoaren industria bultzatzea.
GAIKAKO EREMUA	EGITURA EKONOMIKOA HIRUGARREN SEKTOREA
AALBORG-EKO KONPROMISOA	8. TOKIKO EKONOMIA BIZI ETA JASANGARRIA 9. BERDINTASUN ETA JUSTIZIA SOZIALA
DESKRIBAPENA	Ekintza honen helburua Durango eta bere eskaintza turistikoa sustatu eta ezagutaraztea da. Ezagutza ematea, gure produktu eta zerbitzuak ezagutaraztea, jendearen ahotan ibiltzea, berri positiboak sortzea, online egotea. - Turismoko web 2.0 garatzea Durangok helmuga turistiko gisa duen posizionamendua eta kanpoan bere eskaintza turistikoaren online duen posizionamendua hobetzeko: - Egungo egoera aztertzea, balioa ematea, atzerriko hizkuntzetan, baliabide turistikoak eta sektorearen eskaintza online sustatu eta ezagutaraztea (ostalaritza, Hotelak eta Ostatuak, Esperientzia turistikoen sortzaileak, oihartzun turistikoak duten ekitaldien sortzaileak, etab.), gehien erabiltzen diren doako espazio birtualetan. - Durangoko zerbitzu eta baliabide turistikoei balioa ematea erabilera turistikoak duten euskarri birtualetan, bai udal-esparruan, bai udalaz gaineko esparruan; web-ak, aplikazioak, gizarte-sareak eta beste plataforma batzuk. - Adierazleak identifikatzea lortutako emaitzak baloratzeko. "Marketing in house" plana garatzea. Sentsibilizazio eta sustapeneko barneko plana, herritarrei baliabide eta zerbitzu turistikoak ezagutzera emateko, sektoreko langileak eta herritarrak berak ere eskaintza hobeto ezagutu dezan, eta horrela turistari gomendatu diezaion, eta turistak zerbitzu eta produktu turistiko gehiago ezagutu eta erosi ditzan. - Gomendatze- eta fidelizatze-plana diseinatzea herritarren parte hartzea sustatuz, esperientzia turistikoak eskaintzeko web 2.0 estrategikoetara sarrera erraztuz. - Doako liburuxkak ematea. - Durangoren irudia kanporatzeko egokiak diren oroigarrien lerroa egitea. - Helmuga eta interes turistikoak duten ekitaldiak sustatzeko baliabideen (publizitatea) urteko plana diseinatzea. Baliabideen plan selektiboa eta bideratua, lehenetsun gisa online baliabideak izango dituen. - Komunikazio-prozesuaren (Publicity) buru izango den prentsa-arduraduna eta bozeramaile turistikoa zehaztea. - Helmugako dinamizatzaileentzako prestakuntza-planak proposatzea IKTak sakon ezagutu ditzaten.

ALDIZKAKOTASUNA	Etengabea	BETEARAZTEKO EPEA	Luzea (2013-2020)
LEHENTASUNA	Handia	KOSTUA	200.000€
ADIERAZLEAK			
ARDURA JARRAIPENA/ BETEARAZPENA	Turismo Saila		
FINANTZAKETA			

3.5.4. DURANGOKO BALIABIDEAK BARNE HARTZEN DITUZTEN PAKETE TURISTIKOEN MERKATURATZEA BULTZATZEA.			
ILDOA	3.IE. GARAPEN EKONOMIKO DIBERTSIFIKATU ETA JASANGARRIA		
PROGRAMA	3.5. Turismoaren industria bultzatzea.		
GAIKAKO EREMUA	EGITURA EKONOMIKOA HIRUGARREN SEKTOREA		
AALBORG-EKO KONPROMISOA	8. TOKIKO EKONOMIA BIZI ETA JASANGARRIA 9. BERDINTASUN ETA JUSTIZIA SOZIALA		
DESKRIBAPENA	Ekintza honen helburua sektorearekin lankidetzatza estuan aritzea da, produktu turistikoaren merkaturatzea errazteko. - Sektore turistikoarekin batera, alde aktiboa izanda, eskaintzaren merkaturatzea sustatu eta koordinatzea, bidaiak online saltzeko plataformen bidez, zein bidaiak-agentzien bidez. - Pakete turistikoak merkaturatzen dituzten enpresen eta Durangoko erakunde eta enpresen arteko lankidetzatza sustatzea, udalerriko baliabide turistikoak euren eskaintzetan sar ditzaten eta gehiago zabal daitezkeen, topagune edo trukaketa-guneen bidez, bai foro pertsonaletan, bai foro edo plataforma birtualetan. - Mota honetako baliabide turistikoak merkaturatzen lagunduko duten ekimen edo ekitaldien antolaketa bultzatzea.		
ALDIZKAKOTASUNA	Etengabea	BETEARAZTEKO EPEA	Luzea (2013-2020)
LEHENTASUNA	Handia	KOSTUA	100.000€
ADIERAZLEAK			
ARDURA JARRAIPENA/ BETEARAZPENA	Turismo Saila		
FINANTZAKETA			

4.1.1. NORBANAKOAREN AUTONOMIA BULTZATZEN DUTEN ZERBITZU ETA PROGRAMAK SUSTATZEA.			
ILDOA	4.IE. BERDINTASUN SOZIALA ETA GIZARATERATZEA ETA KOHESIO SOZIALA SUSTATZEA		
PROGRAMA	4.1. Norbanakoaren autonomia sustatzea.		
GAIKAKO EREMUA	GIZARTE ONGIZATEA ETA GIZARATERATZEA		
AALBORG-EKO KONPRMISOA	9. BERDINTASUN ETA JUSTIZIA SOZIALA		
DESKRIBAPENA	Ekintza honen helburua pertsona nagusiek beren autonomia pertsonala sustatu eta erraztuko duen testuinguruan bizitzea lortzea da, hots, beren bizitza dauzkaten gaitasun errealean, interesen arabera eta beren erabakien arabera garatzeko aukera ematea, mendekotasuna ahal den heinean atzeratuz, eta beren ohiko inguruan ahalik eta denbora gehien egotea ahalbidetuz. Beraz, ekimena honetan oinarritzen da: - Zahartze aktiboko programak eta ekimenak bultzatzea. - Tailer psikosoziala bezalako programa edo ekimenak eskaintzen jarraitzea. - Aisialdiko jarduerak eta jarduera kulturalak eskaintzea (ibilaldiak, hitzaldiak...). - Adineko pertsonen behatokia mantentzea, beren egoera ezagutzeko (fisikoa, psikikoa, harreman-egoera, bizigarritasun-egoera....). Ekintzaren helburua aniztasun funtzionala duten pertsonentzako egokitutako kirol eta aisialdiko jarduerak mantentzea da. - Aniztasun funtzionala duten taldeentzako egokitutako kirol-jarduerak bultzatu eta sustatzea. - Programa eta zerbitzu berriak diseinatzea, eskaeraren arabera ekintzaren helburua lortzeko.		
ALDIZKAKOTASUNA	Etengabea	BETEARAZTEKO EPEA	Luzea (2013-2020)
LEHENTASUNA	Handia	KOSTUA	440.000€ 2013: 55.000€ 2014: 55.000€ 2015: 55.000€ 2016: 55.000€ 2017: 55.000€ 2018: 55.000€ 2019: 55.000€ 2020: 55.000€
ADIERAZLEAK			
ARDURA JARRAIPENA/ BETEARAZPENA	Gizarte Ekintza Saila		
FINANTZAKETA			

4.1.2. MENDEKOTASUNA DUTEN PERTSONA NAGUSIENTZAKO ZERBITZUAK ETA PROGRAMAK SUSTATZEA BEREN INGURUKO EGONALDIA ERRAZTEKO.			
ILDOA	4.IE. BERDINTASUN SOZIALA ETA GIZARTERATZEA ETA KOHESIO SOZIALA SUSTATZEA		
PROGRAMA	4.1. Norbanakoaren autonomia sustatzea.		
GAIKAKO EREMUA	GIZARTE ONGIZATEA ETA GIZARTERATZEA		
AALBORG-EKO KONPROMISOA	9. BERDINTASUN ETA JUSTIZIA SOZIALA		
DESKRIBAPENA	Ekintzaren helburua egungo zerbitzu eta programak mantentzea eta egokitasunaren arabera programa berriak diseinatzea da, mendekotasuna duten pertsonentzako eta beren inguruarentzako, pertsonak beren etxeetan ondo egon daitezen. Beraz, ekimena honela garatzen da: - "Zaindu" programarekin jarraitzea. - Mendekotasuna duten pertsonen zaintzaileentzako "Familia Atsedena" programa indartzea. - Beste mota bateko programa eta zerbitzuak diseinatzea, eskaeraren arabera ekintzaren helburua lortzeko.		
ALDIZKAKOTASUNA	Etengabea	BETEARRAZTEKO EPEA	Luzea (2013-2020)
LEHENTASUNA	Handia	KOSTUA	120.000 2013: 15.000€ 2014: 15.000€ 2015: 15.000€ 2016: 15.000€ 2017: 15.000€ 2018: 15.000€ 2019: 15.000€ 2020: 15.000€
ADIERAZLEAK			
ARDURA JARRAIPENA/ BETEARAZPENA	Gizarte Ekintza Saila		
FINANTZAKETA			

4.1.3. ETXEKO LAGUNTZA-ZERBITZUA SUSTATU ETA INDARTZEA.			
ILDOA	4.IE. BERDINTASUN SOZIALA ETA GIZARTERATZEA ETA KOHESIO SOZIALA SUSTATZEA		
PROGRAMA	4.1. Norbanakoaren autonomia sustatzea.		
GAIKAKO EREMUA	GIZARTE ONGIZATEA ETA GIZARTERATZEA		
AALBORG-EKO KONPROMISOA	10. BERDINTASUN ETA JUSTIZIA SOZIALA		
DESKRIBAPENA	Ekintza honen helburua egun eskaintzen den etxeko laguntza-zerbitzua mantendu eta indartzea da, pertsonak beren etxean egiten duten egonaldia sustatzeko. Beraz, ekimena honetan oinarritzen da: - Etxeko laguntza-zerbitzua eskaintzen jarraitzea. - Zerbitzua dibertsifikatu edo hobetzea, identifikatzen diren beharren arabera.		
ALDIZKAKOTASUNA	Etengabea	BETEARAZTEKO EPEA	Luzea (2013-2020)
LEHENTASUNA	Handia	KOSTUA	
ADIERAZLEAK	20. adierazlea: Hirugarren adina. - Hirugarren adinekoentzako etxeko laguntza.		
ARDURA JARRAIPENA/ BETEARAZPENA	Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa.		
FINANTZAKETA			

4.1.4. TUTORETZAPEKO APARTAMENTUETARAKO EGON DAITEKEEN ESKAINTZA AZTERTZEA.			
ILDOA	4.IE. BERDINTASUN SOZIALA ETA GIZARTERATZEA ETA KOHESIO SOZIALA SUSTATZEA		
PROGRAMA	4.1. Norbanakoaren autonomia sustatzea.		
GAIKAKO EREMUA	GIZARTE ONGIZATEA ETA GIZARTERATZEA		
AALBORG-EKO KONPROMISOA	9. BERDINTASUN ETA JUSTIZIA SOZIALA		
DESKRIBAPENA	Ekintza honen helburua udalerrian pertsona nagusientzako egon daitekeen tutoretzapeko etxebizitzaren eskaintza. Beraz, ekimena honetan datza: - Durangon tutoretzapeko etxebizitzaren eskaintza neurtzeko azterketa burutzea.		
ALDIZKAKOTASUNA	Zehatza	BETEARAZTEKO EPEA	Laburra (2013-2015)
LEHENTASUNA	Ertaina	KOSTUA	2015: 10.000€ 10.000€
ADIERAZLEAK			
ARDURA JARRAIPENA/ BETEARAZPENA	Gizarte Ekintza Saila		
FINANTZAKETA			

4.2.1. GIZARTEKO BAZTERKERIA JASATEN DUTEN PERTSONENTZAKO LANERATZEA ETA GIZARTERATZEA SUSTATZEA.			
ILDOA	4.IE. BERDINTASUN SOZIALA ETA GIZARTERATZEA ETA KOHESIO SOZIALA SUSTATZEA		
PROGRAMA	4.2. Pertsona guztien gizarteratzean aurrera egitea		
GAIKAKO EREMUA	GIZARTE ONGIZATEA ETA GIZARTERATZEA		
AALBORG-EKO KONPROMISOA	9. BERDINTASUN ETA JUSTIZIA SOZIALA		
